

ARGIA

HONDALEA *Hustutako itsasargi bat turismoari*

24-29. orriak

#2.741 | 2021 / 07 / 18 | 3,90 €



**Drone hiltzaileak
Libian hasi dira
erabakiak hartzen**

10 | NET-HURBIL



**"Lo-kantak eta
sexualitatea lotzea
bururatu zitzaidan"**

14 | MAIDER LASA



**"Europako funtsen
dirua ez da
pertsonengana iritsiko"**

38 | NICOLA SCHERER

2. argitaraldia



XAPOKETAN

KARTA-JOKOA



15€

Bidalketa gastuak: 4 €

Ezagutu Euskal Herriko animaliak!

Euskal Herriko lurralde banatako zazpi ekosistema eta 42 animalia ezagutuko ditugu. 5 jolas ezberdin egin daitezke: familia jolasa, puzzlea, ezkutaketa eta memoria eta azkartasun jokoak.

EDUKIAK:

Iñaki Sanz Azkue biologoa

IKUSPEGI PEDAGOGIKOA:

Lore Erriondo EHuko irakaslea

MARRAZKIAK:

Eñaut Aiertzagüena

Eskaerak: azoka.argia.eus / 943 37 15 45

 ARGIA

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN
UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

- 19 | DAVID BOU
- 20 | JUNE FERNÁNDEZ
- 21 | AINHOA AZURMENDI
- 21 | ITZIAR BARDAJI
- 22 | ENEKO OLASAGASTI

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 44 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
LUCIANA ALFARO
- 54 | BERANDUEGI



10 | NET HURBIL

Droneak Libiako gerran zein modutan eta zertarako erabiltzen ari diren azaldu du Net Hurbilek, bi artikulutan: Pello Zubiriak idatzitakoak dio robotak hasi direla erabakitzen autonomoki tiro egitea, eta jauzi kualitatibo hori teknologikoki errazegia eta oharkabean pasatutakoa izan dela. Wolfram Lacherrek *War On the Rocks* aldizkarian argitaratutakoak erakusten du estatuek ekintzak ezkutatzeko sistema direla.

Elkarrizketak eta erreportajeak

4 | PERTSONAIA | MAIDER LASA
**“Ahoz aho transmititutako
 lo-kantak gure zeluletan daude”**
 Miel A. Elustondo

24 | KULTURA
**Eskultura bat Kontxako
 badiaren bihotzean**
 Peru Iparragirre

30 | KIROLA | JAPONIA 2001
Sokari tira, ofizialtasuna bultza
 Eñaut Agirrebengoa

34 | EUSKARA | BEÑAT GARAIO
**“Ezer egiten ez denean, euskara
 askoren arteko bat da hizkuntza
 aniztasunaren erdian”**
 Miel A. Elustondo

37 | EUSKARA
**Ipar Euskal Herriko Osasungoa
 Euskalduntzeko Elkarteak sortu da**
 Onintza Irureta

38 | EKONOMIA | NICOLA SCHERER
**“Osasungintza eta zaintza lanak
 zeharo ahaztuta daude
 Next Generation funtsetan”**
 Unai Brea

46 | KULTURA | EGOKITZAPEN
 ZINEMATOGRAFIKOEZ
**Eta Antigoneren hitzak irudi
 bilakatu ziren**
 Ainhoa Gutierrez del Pozo

Jabetza
 Komunikazio Biziagoo
 S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria
 Onintza Irureta

Erredakzioa
 Amaia Lekunberri, Axier Lopez,
 Eneritz Arzallus, Estitxu Eizaguirre,
 Gorka Bereziartua, Iraitx Madariaga,
 Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
 Lander Arbelaiz, Mikel Garcia,
 Onintza Irureta, Pello Zubiria,
 Peru Iparragirre, Urko Apaolaza,
 Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
 Maitane Gartzandia

Argazkilaria
 Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa
 Antza S.A.L.

Administrazioa
 Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte

Salmenta
 Karlos Olasolo, Olatz Korta,
 Pello Basurto

Azoka
 Mikel Olabide

Idazkaritza
 Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
 Asier Iturralde

Informatika
 Iametz interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
 SS 837-2012

ISSN
 0213-909X

Batzorde parekidea
 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak
 komertzial@argia.eus
 harpide@argia.eus

Telefona
 943371545

Gipuzkoa
 Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Nafarroa
 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
 31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko ideia da ARGIA
 honako enprekin batera:

aniza
 KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametz
 interaktiboa

ADUR software
 productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
 zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure
 egileta aitortu eta baldintza beretan
 eginez gero. Are gehiago, gure edukiak
 ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren
 edukientzat da baliagarria,
 baliteke beste testu eta argazki
 batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
 SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
 SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
 POLITIKA SAILA

Atzeko patioa

Haitiko presidentea tiroz hil dute. Washingtonek babestutako enegarren enpresari-txontxongiloa. Dekretu eta sarraski bidez gobernatzen zuen Jovenel Moisek, areago parlamentua deseginarazi zuenetik. “Egoera beretzeko”, AEBei eta NBERi “laguntza” militarra eskatu die Moiseren ordezkioak; kalean, paramilitarrak, herritarren mobilizazioa eta etor daitekeenaren beldurra nagusi direla. Diktadoreen gisara gobernatzen zuen Moisek, baina hilketak ez du eraitsiko bera parte zen sistema ustela. “Gosea, miseria eta segurtasun-eza” delako Haiti, naturalizat eta endemikotzat aurkezten dizkiguten gaitzen paradigma. Bere burua “gobernatzeko” besteen “laguntza” behar duen gizarte “atzeratua”. Haiti neokolonialismoaren atzeko patioetako bat da eta. Irudian: ehunka haitiar, pasaportea eskuan asilo eske, AEBetako enbaxadaren aurrean, asteburuan.

📍 VALERIA BAERISWYL / AFP ✂️ AXIER LOPEZ





MOTZEAN

Donibane Lohizuneko ez-jaietan euskaldunen aurka izandako erasoak salatzeak eta euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatzeko elkarretaratzea egin dute, Donibane Ziburuko gaztetxeak deituta.

Donostiako alde zaharrean ostalariek zaborra lagatzen duten edukiontzietako bat aztertu dute publikoki Donostia Bizirik eta Errausketaren Aurkako Mugimenduko militanteek. Edukiontzian nahastuta utzitzakoaren %97 birziklatu zitekeela frogatu dute.

UEFAk ez du Euskadiko Federazioa kide gisa onartu, "ez delako estatu independentea". Ez du aukerarik izango txapelketa ofizialak jokatzeko.

Baimena argi eta garbi eman ezear, sexu erasoak izango da. Hala dio Espainiako Ministroen Kontseiluak onartu duen Sexu Askatasunaren lege proiektuak. "Sexu abusu" delitua ere desagertuko da: baimenik gabe egiten direlarik, denak izango dira "sexu eraso".

500 pertsona baino gehiago eta mila milioi itsas animalia hil ditu aurreko asteetako bero bortitzak Kanadan. Ozeanoetako kalteak konpontzen zailak izango dira.



FORUZAINGOA

Gizon batek emakume bat hil du Murchanten, aurten jada laugarrena Euskal Herrian

 ARGIA / ARABAKO ALEA

Uztailaren 7 goizean jazo da hilketa matxista, Nafarroako Murchante eta Cascante herrien arteko NA-6840 errepidean. Hiltzailea eta biktima auto baten barruan zeuden eta bertan hil du Zumarragako gizonak Pilar Berrio 43 urteko emakume gasteiztarra, labankadaz. Ostein, ihesari eman dio. Azken horrekin, jada lau dira aurten Euskal Herrian egin diren hilketa matxistak.

Hurrengo egunean, Ertzaintzak hiltzailearen autoa abandonatuta aurkitu zuen Legazpin. Segurtasun Sailak baieztatu duenez, Ertzaintzaren ibilgailu kamuflatu bat lapurtu du Donostian, eta, arrasto horri jarraitu ostean, Gipuzkoako hiriburuan bertan topatu eta atxilotu dute.

Mugimendu feministak Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxako protokoloa aktibatu du, eta indarkeria matxistaren aurkako mobilizazioak egin dira hiriburuetan eta herrietan.

URTEKO LAUGARRENA

Urtarrilean bikote batek Aintzane Pujana hil zuen Aizarnazabal, eztabaida baten ostean; hiltzaileek emakumea prostituitzera derrigortzen zuten. Otsailean, Ses-taon, Conchi Gonzalez hil zuen haren senarrak, ostean bere buruaz beste eginez. Apirilean, gizon batek eskopeta tiroz hil zuen emaztea Miarritzen, honek ere bere buruaz beste eginez ostean.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Dena ez da izango larrua



ARITZ GALARRAGA

Neguan zehar landutako giharrek ere erakutsi beharko ditugu, eta etxeko terrazan eguzki txikitan ondutako azal beltzarana, dena ez da izango, ba, larrua jotzea, dena ez da izango, ba, larrua jotzea. Jan beharko ditugu hondartzaraino iristeko auto ilara amaigabeak, eta zapaldu beharko ditugu hondarretan luze etzanda dauden udatiar baketsuak, dena ez da izango, ba, larrua jotzea, dena ez da izango, ba, larrua jotzea. Izozkiren bat ere miazkatu beharko dugu, irrikaz irentsi gofreren bat, boikoteatu beharko dugu azken asteotako dieta zorrotza, dena ez da izango, ba, larrua jotzea, dena ez da izango, ba, larrua jotzea.

Libururen bat ere irakurri beharko dugu, kontxo, ez kezka, izan dadila arina, freskoa, zoriontsua, uda bezala, edo behintzat libururen bat irakurtzen ariko bagina bezala egin beharko da, ondo ematen baitu, zer esanik ez argazkietan, dena ez da izango, ba, larrua jotzea, dena ez da izango, ba, larrua jotzea. Kontzerturen batera ere joan beharko gara, hori beti baita samurragoa, egon, entzun, edo entzungo bagenu bezala egin, eta kultura laguntzen ari gara, eskuan izango dugun tragoaren bidez besterik ez bada, dena ez da izango, ba, larrua jotzea, dena ez da izango, ba, larrua jotzea. Eta herriagatik ere mobilizatu beharko da, noski, nola ez, uda izan arren, ahal bada hondartzan egiten diren elkarretaratze horietako batean, dena ez da izango, ba, larrua jotzea, dena ez da izango, ba, larrua jotzea.

Eta batez ere, guztiaren gainetik, itzuleraren, egunerokoaren, neguaren ideia betiko uxatzen saiatu beharko gara, uda eternalaren ametsa bizitzeko, bizitza betiereko uda bat balitz bezala, kezkarik gabe, arazorik gabe, trabarik gabe, betiko gazte, zergatik ez nerabe, jauzi handiaren zain beti ere, kasu honetan kolpe, dena ez da izango, ba, larrua jotzea, dena ez da izango, ba, larrua jotzea. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

"MADRILERA INDARTSU GOAZ,
BAINA KEZKATUTA ERE BAI"

A. ZULUETA ETA S. AGIRRE, 13/13 MAKROEPAIKETAKO AUZIPETUAK

Arantza Zulueta, Jon Enparantza, Naia Zuriarrain, Julen Zelarain, Iker Sarriegi, Saioa Agirre, Nerea Redondo eta Juan Mari Jauregi dira Espainiako Auzitegi Nazionalak uztailaren 12tik aitzina epaituko dituenak, euskal presoek eskubideen alde lanean arituak. Orotara 77 espetxe urte eskatzen ditu fiskaltzak. Epaiaketa salatzeke Bilbon egin manifestazioan, Zulueta eta Agirrek hitz egin zuten. "Zuek gabe, ezinezkoa izango zen gu Madrilera hain indartsu joatea. Indartsu goaz, baina kezkatuta ere bai, Auzitegi Nazionala ezagutzen dugulako eta badugulako han erabiltzen dituzten trikimailuen berri". 2021/07/10



EKONOMIAREN TALAIAN

Gaindegia, beharrezko behatokia



JUAN MARI ARREGI

Gaindegia, bizi dituen zailtasun ekonomikoen eraginez, behategiko jarduerak eten ditu ekainaren 30arekin. Ondorioz, orduz geroztik ez du eduki berririk sortu edota zabalduko". Mezu lakoniko horrekin Gaindegia, Euskal Herriko behatoki sozioekonomikoak 17 urteko lana eten du. Eta arrazoi ekonomikoengatik eman du itxitzat lan hori gainera. Hein batean, proiektuaren alde egin zuten erakundeak, hala nola Gipuzkoako Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta beste batzuk, haien lurraldeetako muga administratiboak gainditzen zituen behatoki batean hain interesatuta ez egotearen biktima izan da.

Gaindegia ez luke egoera honetara inoiz iritsi behar. Gure herriaren erradiografia ahalik eta osoena eta egiazkoena izateko beharretik sortu zen, Euskal Herriko errealtatearen ikuspegi partzial eta sarritan okerrak besterik ez baikenituen. Ikuspegi kamuts horren aliatu onena inposatu diguten lurralde-banaketa politiko administratiboa zen. Hasiera-hasieratik, Gaindegia hesi hori gainditzen saiatu zen, horretarako Euskal Herri osoago baten argazkia izaten lagunduko zuten datu eta analisiak ekarriz, lurralde zatiketaren gainetik. Ekarpene hori eragile sozial zein politikoen eta hedabideen zerbitzura jarri zuen, bakoitzak bere estrategiarako erabili zezan.

Duela 17 urteko helburu horiek lehen bezain baliagarriak dira gaur egun ere. Behatokiaren bazkideek, gizarte-eragileek eta administrazioek gogoeta egin beharko lukete Gaindegia etorkizuna berriz ere bideragarri izan dadin. Herri honen zerbitzura dagoen behatoki sozioekonomikoa da, teoriarik behintzat askok amesten dugun eta bere alde borrokan jarraitzen dugun Euskal Herriaren zerbitzura. Gaur-gaurkoz, Gaindegia jarraitzen du izaten erakunde nazional beharrezkoa eta ordezkazina. ●

ANALISIA



EIKIKLIK

Torturatuaren mina gaur

XABIER LETONA BITERI

Torturaren munduan kazetari lanean sartzeak hainbatetan barrenak nahastuta ateratzea dakar. Eta eskerrak, bestela norbere buruaz kezkatzekoa litzateke eta. Ez, denborak ez gaitu ohitu. Duela 40 urte, 30, 20, 10... kalean, komunikabideetan, lagunen artean, etxean... entzundako edo irakurritako torturaren minak bizirik dirau euskal gizartean. Bizirik eta zokoratuta.

Esaten da 2014tik ez dela tortura salaketarik egon, euskal gatazkari lotutako gaietan bederen. Tarte horretan gainera, Eusko Jaurlaritzaren aginduz egin da Euskal Herrian egin den tortura ikerketarik zehatzena (2017), nahiz eta bakarrik EAEko kasuak aztertu dituen. 1960tik 2014ra 4.113 tortura salaketen berri jaso zituen, horietako 500 bideoz grabatu ziren eta 202 pertsonari Istanbulko protokoloa egin zitzaion.

Euskal Memoria Fundazioak ere badu eginga bere azterketa (1960-2013): 5.657 kasu Euskal Herrian, horietatik 693 Nafarroan. Iragan legealdian, Uxue Barkos-en gobernuak ere agindu zuen ikerketa bat Nafarroan, 1960-1978an izandako tortura kasuei buruzkoa: 169 salaketa jasotzen ditu txostenak. Foru Gobernuak aitortu du 2014a arteko lana bukatzeko asmoa, baina legealdiaren bi urte pasatu dira jada. Nafarroako Torturatuaren Sarearen ustez milatik gora dira herrialdeko torturatuak.

Esan liteke, beraz, torturaren biktimen ezagutzan zerbait aurreratu dela: Hegoaldeko bi gobernuak agindutako ikerketetan, sikiera 4.300 bat pertsonari aintzat hartu zaio –nolabait hau ere– torturatuak izan dela. Urrats txikia torturaren biktimen aitortzearen, justiziaren eta erreparazioaren bidean, baina erraldoia milaka torturaturentzat, haien eskaeretan aitortza delako behinena: Espainiako Estatuak aitortu dezala bere zerbitzuko segurtasun indarrek hamarkadatan zehar torturatu zutela, inpunitez eta estatuko sare zabal baten parte-hartze eta babesarekin. Baina nola onartu Madrildik euskal disidentziaren aurkako gerran, tortura arma indiskriminatu eta garrantzitsuenetakoa izan zela?

Hara paradoxa, lehen gatazkak tortura ikusarazten zuen euskal esparru zabal batean behintzat. Orain, ikerketen garaian, torturatuak gero eta zokoratuago daude, kontakizun nagusiaren harian galtzaileei dagokien moduan. Ez dago plakarik haien garrasiarentzat, ezta harrera ekitaldirik legebiltzarretan, lehendakaritza, diputazio edo udal aretoetan, kalean ere ozta-ozta... balirudike memoriaren zurrumbiloak betirako irentsi duela tortura, noizean behin *Non dago Mikel?* batek astindua eman arte. Zorionez –ikusgarritasuna eta ukendua da– eta zoritxarrez –ezin inoiz alboratu–, torturatuak dira haien borrokaren lehen lerroan, bereziki Nafarroan. Haien garrasia gero eta ozenagoa da, behar dute: "Tortura ikertu". Baina ez dakit gizartean entzuten zaien eta, duda barik, hori bai da kezkarria. ●

Tubacexeko kaleratzeak balioagabetu ditu Auzitegi Nagusiak

ERREDAKZIOA

Tubacexen Aiaraldeko bi lantegietan egin dituzten EEKak eta 129 kaleratzeak balio gabe utzi ditu EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak. Langileak berriz onartzera behartuta dago zuzendaritza, baina helegitea jarriko duela aurreratu du dagoeneko.

EBAZPENA

Ekainean egin zen epaiketa, eta iritsi da ebazpena: Auzitegiak ez du onartzen lanpostuak suntsitzea dakarren neurririk, "ez baitago EEK aurkezteko eta langileak kaleratzeko arrazoi nahikorik". Pandemiak eragindako egoera puntuala ezin dela langileen kaleratze bilakatu defendatu izan du enpresa batzordeak. Zuzendaritzak langileak berriz ere onartu beharko ditu, baina Madrilgo Auzitegi Gorenean helegitea aurkeztuko duela iragarri du, "negozio eredu nabarmen aldatu" dela argudiatuta.

BORROKA IRMOA

Otsailean hasi zuten langileek greba mugagabea, eta ordutik tinko aritu dira euren eskubideen alde borrokan. Ezagunak dira burutu dituzten ekin-tza eta piketeak, eta beraien aurka egin izan du Ertzaintzak, behin baino gehiagotan.



EHGAM


SAMUELENTZAT JUSTIZIA ALDARRI

HEGO EUSKAL HERRIA. Samuel Luiz galiziarren hilketa homofoboak –eta Euskal Herrian bertan izan diren beste hainbat eraso LGBTfobok– eragindako amorru olatua Euskal Herrira iritsi da. "Xustiza para Samuel, Samuelentzat justizia" aldarrikapenak hartu ditu kaleak eta halakoen atzean dauden gorroto diskurtsoak, instituzioen eta hedabideen jarrera epela, erasotzaileen inpunitatea eta borrokan jarraitzeko premia nabarmendu dituzte LGBT+ elkarteek. "Beren LGBTfobia eta misoginiagatik akabatzen gaituzte, egin dezaketela sentitzen dutelako", salatu du EHGAMek.

MURRIZKETAK

763

ohe gutxiago izango dituzte Hego Euskal Herriko ospitaleetan, eta kontsulta, proba eta ebakuntzen kopurua ere txikitu egingo da. Hala salatu du SATSE erizainen sindikatuak. Pandemiak itxaron zerrendak izugarri handitu dituen garaioan, horri aurre egiteko udako hilabeteak aprobetxatu ordez murrizketak egingo direla kritikatu dute: "Dirua aurrezteko lehenetsi dute".



DISKRIMINAZIOA. Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak "Diskriminazioa eta aniztasuna EAEn" ikerlana argitaratu du. Azken urtean pairatutako diskriminazioetan, gehien agertu direnak adinari eta desgaitasunei lotutakoak izan dira.



KONTROL SOZIALA. Espainiako Poliziak aurpegiak automatikoki identifikatzeko sistema erabili nahi du urritik aurrera. Polizia Zientifikoak esan du identifikaziorako sistema berri hau "armatzat" har daitekeela. Legearen onspena behar da aurten erabiltzen hasi ahal izateko.



UNION TUTERA. Erriberako hainbat gaztek kirol taldea sortu dute: konpromiso soziala izango du eta berdintasunetik, parekidetasunetik, errespetutik heziketa egin nahi duen taldea da. Euskararekin aparteko inplikazioa izango du. Futbola-ekin hasiko dira.

ROBOTAK LIBIAN ESTREINATU DIRA GUDARI AUTONOMO GISA, GIZAKIEI TIRO EGITEA BEREN KASA ERABAKIZ

Joan den martxoan drone batek autonomoki egin die eraso gudari humanoiei, Nazio Batuen Erakundeak iragarri duenez. Libiako gerra zibilean gertatu da, Tripoliko gobernuak darabiltzan robot turkiarrek hainbat soldadu arerio hil eta gainerakoak ihes egitera behartu dituztenean. Gizakiaren aginduen zain egon barik gerra egiten duten roboten aroan sartu gara. Aro berri bat, kezka larriz beteta abiatu dena.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Historian lehenbizikoz, drone batek erabaki autonomoz hil ditu gizakiak. Horra jauzi kualitatibo gaila. Nazio Batuen Erakundeak berria ekainean zabaldu arren, eraso martxoan gertatu zen Libian borrokatzen ari diren bigarren gerra zibilaren baitan. Khalifa Haftar jeneralaren tropak gaina hartzen ari zitzaizkiela eta Tripoliko gobernuarenei, hauek erabili zituzten Turkiak saldutako hainbat drone, zeinetako gutxienez batek urruneko kontrolatik aske era autonomoan egin zien tiro arerioei, batzuk hil eta gainerakoak ihesera behartuz.

Kargu-2 izeneko droneak –Turkiak nazioarteko enbargoari muzin eginez libiarrei salduak– erabili zituen Tripolik bere erasoan. Adimen artifizialez hornitutako hegazkinok programatuta daude bere ehizakiei tiro egiteko urrundik kontrolatzen dituen gizakiaren agindu barik, nahiz eta orain artean azken agindua militarrek emanda erabili diren.

STM konpainiak merkaturatzen duen Kargu-2 dronea (“arranoa” turkieraz) lau helizeduna da. Txikia, konpainiak Interneten azaltzen duenez zazpi kilo pisatzen du, bost kilometroko radioan egiten du lan ordu erdi arte eta orduko 72 km-ko abiaduran mugi daiteke. STMk bi-

dean argi azaltzen du nola eraso eta hil ditzakeen soldaduak era autonomoan.

Nola? Militar batek programatzen du Kargu-2-aren softwarea eta dronea aireratzen. Droneak bilaketa egingo du koordenada horien arabera, ehizakia hauteman, doan altueratik murgil batean hurbildu etsaiengana eta hauen inguruan bere burua lehertuko du, ez-tandarekin balak jaurtiz alde guztietara, “mulko bonba” beldurgarriek (*cluster bombs*, ingelesez) egiten duten gisa. Gai militarrek lantzen dituen *Popular Mechanics* webguneak dioenez, “militarren hizkeran teknika hau deitzen da ‘egin tiro eta ahaztu’, esan nahi baita, dronea ondo programatua airean ipinitakoan haren ardura daukan militarra joan daitekeela beste edozertara, lekutik alde egin, beste eraso bat programatzen jarraitu edo berdin bazkaltzera joan”.

Hainbestearinokoa izan ote da Libiako tiroketa horren garrantzia? Ez da izango hedabide nagusiek alarma handirik piztu dutelako. Jauziaren tamaina neurtzeko, onena militarren artean lanean ari den aditu bati entzutea. Zachary Kallenborn *freelance* moduan aholkulari ari da AEBetako gobernuaren hainbat ataletan eta bi artikuluko zehaztasunez beteak argitaratu ditu Libiako erasoaz.

Bulletin of Atomic Scientist-en idatzi du Kallenbornek: “Arma autonomo bat gerran lehenbizikoz erabilitakoa ez da iragarriko zeruan suzko bola erraldoi batez edo gizakia munduaren suntsitzailer bilakatu delako esaldi ilunekin. Arma autonomo baten lehenbizikoz erabilerak drone arrunt baten itxura edukiko du. Gertakizunak erakusten du zein den arma automatikoen debekua arautzeko arazo nagusia: ez da ziur jakingo ezta erabili dutenik ere”.

Zenbait gertakizunek gizakiaren historia aro berri batean sartzen dute. AEBetako armadak 1945ean Alamogordon (Mexiko Berria) lehen bonba atomikoa lehertu zuenean, gizarte, ekonomia eta militar arloetan errotikako aldaketa eragin zuen munduan. Berresten baldin bada Libiako eraso, esan nahiko du Lurra iragan dela arma hilgarrien kontrol osoa gizakiak zeukaten epoka luzetik makinak beren kasa hil dezaketenean batera.

ROBOTEN GERRA ASIMETRIKOA

Kargu-2 itxura batera lau helizeko beste edozein drone bezalakoa da. Softwarean dago aldea, baina nekez ezagutu ahal izango da leherketak utzitako arrastoe-tatik. Beraz, galdera baldin bada mili-

tarrek ba ote duten gaitasunik drone zibilak egokituta gizakiak –oinezko herritarrek barne– ehizatzen jartzeko, arrapostua da baietz. Beraz, jadanik eztabaidatu beharrekoak arma horien ondorioak dira.

Robot hiltzaileen debekua eskatu dutenek asko azpimarratu dituzte erasoetan helburu militar “legitimoen” bila joanda robotek pettoz zibilak hiltzeko arriskuak. Gaur jada misil eta drone urrundik gidatuekin hutsegiteak ugarriak baldin badira, pentsa makinek beren kasa tiro egiten badute...

Kargu-2 moduko droneak gidatzen dituzten softwareen algoritmoek “ikasi” dute data sail handiak metatuta, esaterako aurrean aurkituko dituzten objektuak ezagutzen trebatuta. Ordenagailuaren ikusmen programak entrenatzen dira bereizi ditzaten, adibidez, autobusak edo traktoreak tankeetatik. “Alabaina –dio Kallenbornek– gerta daiteke trebatzean erabilitako data multzoak ez aski osatu eta adimen artifizialak

ikasgaia ‘oker’ barneratzea. (...) Ez da berdin tiro egitea tanke bati, itsasontzi militar bati edo gizakiei. Gaur egun makina bidezko ikasketa sistemak ezin ditu ziurtasunez bereizi baserritar bat eta soldadu bat”.

Hanka-sartzeen ondorioak ez dira denak berdinak izango. Arma automatikook erabili ditzakete balak, bonbak, misilak, gerra elektronikorako nahasgarriak, laserrak, mikro-uhinezko armak, agente kimikoak, agente biologikoak... eta baita bonba atomikoak ere. Eta arriskuak are gehiago ugarituko dira droneak bakarka joateko orde talde autonomoan erasotzera badoaz (*drone swarm* edo “drone erlekumea”).

Pentsatzekoa da, bestalde, teknologia berria ez dela betiko geratuko soilik armada erregularren eskuetan. Gerra asimetriko guztietan bezala, roboten erabilera asimetrikoa ere ikusiko da laster. Berkeleyko (Kalifornia, AEB) unibertsitatean informatika irakasten duen Stuart Russellek esan du: “Hiru ikasle on

hartuta eta robotikan ari diren nire bi lankideren laguntzaz, landu dezakegun proiektu bat litzateke eraikitzea arma bat, Nazio Batuen Erakundearen egoitzan sartu, Errusiaren enbaxadorea aurkitu eta hari ‘paketetxoa’ bidaltzea”.

Libiako erasora itzulita, dio Kallenbornek zaila izango dela erabat berres-tea droneek autonomiaz egin zuten: “Gerra berez baita nahasgarri eta uherria. Garbi dago estatu asko, handi eta txiki, ari direla garatzen arma autonomoak. Teknologia ere ez du zertan izanik hain konplikatua. Aurpegiaren ezagutza teknologia daraman arma autonomo bat diseinatzea hain da erraza ezen eta informatikako eskola proiektu bat izan baitaiteke. Arma autonomoak erabili direla frogatzeko zailtasunak esan nahi du ziurrenik jada munduan “robot hiltzaileak” erabili dituztela inor ohartu barik. Arma autonomo bidezko gerraren egunsentia behar bada gertatu da ikasle batzuek etxeko lanak bukatzea bezain gauza xume baten moduan”. ●

KARGU-2

Turkian ekoiztutako Kargu-2 drone txikia, NBEaren arabera bere kasa (Adimen Artifizialez erabakita) gizakiak tiroz hil dituen.



LIBIA, ZIURRENIK MUNDUKO DRONE-GERRARIK HANDIENAREN AGERTOKIA

Libian zerutik bonbak erortzen direnean, hasten da nork jaurti dituen asmatzeko jokia. Han esku hartzen duten atzerriko bost estatuetatik edonor izan daiteke arduraduna, edo Libiako bi gobernu lehiakideen bi aire armadetako bat. Sarri hauetako batek ere bere gain hartzen du, benetan eraso atzerritarrek egin arren. Beste eraso asko errebindikazio barik geratzen da. Bonbardaketa batek eskandalua eragiten duelarik, errudunek arerioei egozten diete kulpak.

 **WOLFRAM LACHER**

War On the Rocks aldizkarian 2020ko martxoan argitaratutako *Drones, Deniability, and Disinformation: Warfare in Libya and the New International Disorder* artikulutik.

Arduradunak aurkitzeko interes handia edo profesionala dutenak trebatu dira egiten susmagarrien artean hautatzeko galderak. Biktimak nor uste du dela, ziurrenik, erruduna? Zer iradokitzen dute erasoaren prezioak eta kaltearen neurriak hegazkin erasotzaileaz? Bonbak kale egin badu bere intentzioan, Libiako bi aire armadek dauzkaten MiG, Sukhoi edo Mirage hegazkin zaharrak izan dira. Misil txikiago eta telegidatuak bere ehizakia bete-betean harrapatu duenean dronea da susmagarri nagusia. Ziurrenik izango zen Arabiar Emirerri Batuek erabilitako Wing Loongs txinatarra edo Turkiak darabilen Bayraktar delakoa, Turkiako lehendakari Recep Tayyip Erdoganen suhi Selçuk Bayraktarren konpainiak ekoiztua. Edo erasoan batu badira txikizio handia eta prezisioa, erruduna izango da puntako teknologiako gerra hegazkin bat, ziurrenik Emirerrien Mirage 2000 frantsesa edo, menturaz, Egiptok dauzkan Rafale-etako bat (Frantzia ekoiztua hau ere) edo estatu bat baino gehiagok darabiltzaten F-165 iparramerikarretako bat. Lekukoek entzun badute hegazkin milita-



Txinan egin eta Emirerri Arabiarren armadak Libiara eramandako Wing Loongs dronea base militar batean.

rraren hurbileko ziztua edo eta drone baten urruneko zurrumurrua, horrek arrasto gehigarriak pilatzen ditu, nahiz eta batzuetan hegazkinak eta droneak aldi berean ibili inguruetan. Jaurtigaia- ren hondarrak dira probarik zuzene- nak (smoking gun edo “ketan dagoen

pistola”), baldin eta ziur bazaude zuk uste duzun aldeak jaurtia dela.

Galdera hauek eguneroko ogia bilakatu dira, inork ez dituelako publikoki identifikatzen erasoen errudunak, ez Nazio Batuen Erakundearen ordezkari- tza, ez AEBek eta ez Mendebaldeko



Lau helizek mugiarazten duten Kargu-2 droneak tiro egin dezake bai urrundik militar batek aginduta eta bai bere algoritmoen erabaki autonomoz.

beste ezein estatuk. Libiako gatazka lagun arteko gerra txiki bat balitz bezala, ematen du itsusia dela lehiakideen izenak salatzea. Hau ezbairik gabe egia da Arabiar Emirerri Batuen eta Egiptoren jokabideari dagokionez. Turkiak 2020ko erabaki zuen Tripoliko gobernuaren alde egun argitan esku hartzea eta Mendebaldearen kritikak piztu zituen gudari siriar turkomanoak hara bidali zituelako, ez ordea 2019ko maiatzetik Turkiak droneekin egiten zituen erasoengatik. AEBek ozenki aurpegiratu diote Errusiari mertzenarioak bidaltzea Khalifa Haftarren milizien alde borrokatzea, Mendebaldeko herrialdeek behin eta berriro salatzen duten bezala

Errusiaren esku hartzea beste zenbait gatazkatan. (Errusiak ez du oraindik aireko erasorik egin Libian).

2019ko apirilean Haftarrek Tripoli hiriburua bereganatzeko ofentsiba sutu zuenez geroztik, ondorengo guduetan droneen gain joan da aireko erasoen zama handiena. Urte haren amaiera bitartean 1.000 erasoz goiti eginak zituzten droneek, Libia bihurtuz "ziurrenik munduko drone-gerra handienaren agertokia", Nazio Batuen Erakundearen ordezkari Ghassan Salamék definitu izan duenez.

Droneak merkeak dira eta, mertzenarioen ugaritzea bezala, eta biak dira Libiako gerran atzerriko armaden

esku hartzearen ezaugarriak. Gerra ordezkoen bidez –surrogate warfare– egiteko joera gero eta zabalagoa ere erakusten dute. Gutxieneko inbertsio batekin eta ageriko arrasto gutxi edo batere utzi gabe, atzerriko potentziek beren indar militar ohikoen arriskuak gutxitu dituzte eta saihestu dute ekin-tzen errudun azaltzea, aldi berean gudu-zelaian eraginkortasun handia atxikiz. Orogen gainetik, Libiako saltsan sartutako estatuek bilatu dute beren esku hartzea ukatu ahal izatea munduaren aurrean. (...) Droneen erasoak bata bestearen ondotik, Libian hondoratzen ari da nazioarteko ordena, bere arau eta guzti. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

NINA MÛR
eyewear

Egurrezkoak
Eskuz landuak banan-banan
Jasangarriak
Arinak eta erresistenteak
Kalitate handiko eguzki-lenteak



Hernani 23, 20004 Donostia • 943 420 624 • zinkunegioptika.com



BELAUNEZ BELAUN AHOZ AHO TRANSMITITU DIREN LO-KANTAK GURE ZELULETAN DAUDE



Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxearen *Batera* proiektuen emaitzetarik bat gauzatu du berrikitan Maidier Lasak, Malen Iturriekin elkarlanean. Ekainean aurkeztu zuten *Loa, loa, laguna* izeneko ikusgarri performatiboa, ahotsez, gorputzez eta irudiz. Tradiziozko lo-kantak oinarri, harrigarritzko interpretazio magiko baten sortze bideak gogoetatu ditu elkarriketan.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Bartzelonan zinela uste genuen eta, hara non, *Loa, loa, laguna* ikuskaria aurkeztu diguzu Gasteizen...

Bai, nik ere horixe pentsatzen nuen, Bartzelonan nengoela, kar, kar! Han nengoe-la, duela hiruzpalau urte, adiskide bati eta bioi kabaret saio txiki bat eskatu ziguten. Nire lagun hura dantzaria da; ni, kantaria. Ez genuen askorik pentsatu. Niri, melodia bat etorri zitzaidan gogora: *Lo hadi aingerua*. Huraxe kantatzen eta lup-arekin jolasean hasi nintzen, ziklo bat grabatzen eta haren gainean grabazio gehiago egiten, kiribilean. Hiru ahots ere egin nitzakeen! Eta hor da kantaren istorioa, ezta? Aita itsasoan, ekaitza, ama haurrarekin, lokartu dadin ahalegine-

tan... Nire laguna dantzan, ni kantuan, eta halako mugimendu bat zetorkidan, haurra besoetan bularraren kontra hartu eta kulunkatzen ariko banintz bezala. Eta ohartu nintzen han zerbait gertatzen ari zela, mugimendu hark zerbait gordetzen zuen, eta nork nor lasaitzen zuen ere ez nekien, amak haurra, ala haurrak ama? Itsasoa ere presente zegoen gure emanaldian... Esan nahi dut hor bazela zerbait, ikertu beharrekoa.

Ikerketa izan da abiapuntua, beraz.

Bai, eta haurtzaroko lo-kantak gogora ekartzeko ahaleginak egiten hasi nintzen. Eta aitak kantatzen zidan bat etorri zitzaidan gogora, eta abesbatzan kantatzen

genituenak. Ez gehiegi ere. Hortaz, batetik, euskarazko lo-kanta tradizionalak nituen, eta, bestetik, bularraldearekiko, magalarekiko lotura: amaren besoetako espazioa, segurtasunarena, edoskitzearena... Hazten garenean galtzen dugun espazioa, hazten garenean entzuteari uzten diogun kantak. Lan egin behar izan nuen garai bateko lo-kantak gogora ekartzeko eta baita berriak ikasteko ere. Lo-kanta zaharren bila abiatu nintzen, eta ohartu nintzen haietako batzuk ezagunak zitzazkidala.

Bularraldearekiko edo magalarekiko lotura aipatu duzu...

Espazio goxo hori, haurtzaroan oinarritz-



Maidar Lasa Santamaria

GASTEIZ, 1997



Ahotsa, gorputza, irudia konbinatzen dituen artista gaztea da. Ikusleak harritu ditu oraindik orain Gasteizen. Kantua ikasi zuen Gasteizko Jesus Guridi kontserbatorioan, baina irakaskuntza arautuaren bideak bazter utzi eta bide libreetan barna dabil, ikertzen, sortzen. Bila ibiltzeak Bartzelonara eramane zuen, eginak ditu diren eta ez diren ikastaro, tailer, eskola eta bestelakoak, biderik ez baita, bere bidea egiten ari baita. *Loa, loa, laguna* emanaldia, eta izen bereko diskoa, izan ditu lehen emaitza. Etorkizun artistiko oparoaren lehen zimentarria jarri du.

koa, sexu girokoa bihurtzen da gero, eta zentsuratu eta estali egiten da. Horrek ere zer pentsa eman zidan, eta lo-kantak eta sexualitatea lotzea bururatu zitzaidan. Asmo horixe izan nuen. Duela hiruzpalau urteko kontuak dira. Asmoa ez zen gauzatu. Bitartean, hainbat lan, tailer eta kolaboraziotan ari nintzen eta, bestalde, neure egitasmo propioak gauzatzeko amorratzen nengoen, zeren inoren lanetan ez bainuen nire burua guztiz sortzaile eta artista-tzat errealizaturik ikusten. Eta, orduan, antzerki eskola itxi ziguten.

Antzerki eskola itxi?

Bai, Covid-19a zela kausa. Eta Gasteiza itzultzea erabaki nuen. Ustez, hamabost eguneko kontua izango zela. Garaian, emanaldi bat prestatzen ari nintzen, soinua, ahotsa, gorputza... konbinatzeko asmotan orduan ere. Eta, Gasteizen, kalean zehar, iragarki bat ikusi nuen, Oihaneder Euskararen Etxearen Batera kultur proiektuena. Betebeharrekoak-eta irakurri, eta zuzenean burura etorri zitzaidan lo-kanten inguruko lana. “Oraintxe garaia!”, esan nion neure buruari. Halaxe sentitu nuen. Eta deialdira aurkeztea erabaki nuenez, barruan neukana idatzi behar izan nuen, eta ideiak birpentsatu, eta egin nahi nuena berrantolatu. Proiektua aukeratu zuten eta lanari lotu nintzaion.

Zein pauso eman zenituen barruan zeneukan ideia gauzatzen hasi aurretik?

Formatua erabaki behar nuen. Bane-kien lo-kantak izango zirela abiapuntu, maitasunez kantatuak. Alderdi hori berreskuratu nahi nuen, interesgarriak iruditzen zitzaizkidan. Eta ikertzen hasi, eta benetan ziren interesgarriak. Batzuek izuari ere dei egiten zioten: “Haurra putzura erori eta bizkarra eta lepoa hautsi”. Adibidez. Hortaz, formatua erabaki nuen, tradiziozko lo-kantak bertsionatuko nituen, aldian aldiko sortzen ziren betekizunen arabera, eta energia sexuala ere kontuan hartuko nuen, bizitzeko indar sortzailea baita, egunero bizi eta habitatzen duguna.

Sexua aipatzeak nahasmendurik ere eragin du.

Bai. Prentsaurrekoa egin eta, batean, zera irakurri nuen: “Maidar Lasak lotara baino lehen aditzeko kantu erotikoak egingo ditu”. Kar, kar, kar... Se-

xua aipatu eta horixe! Kar, kar, kar... Baina, tira, hori ere interesgarria izan zen, bide berriak urratzera eramane baininduen, bestelako aukerak ikertzera. Alabaina, esan dizut, asmoa lo-kantak berreskuratzea zen, haiei espazio berriak irekitzea, argiz eta airez betetzea... Ikertzea, azken finean. Ideiak hortxe daude beti. Besterik da haiek gauzatzea.

Emanaldia egin zenuten, lo-kantak berrinterpretatu eta bertsionatu, eta irudiz jantiz ere bai.

Bai, lo-kantak irudiz jantzzea pentsatu nuen, kantatzen dudan bakoitzean irudiak etortzen zaizkidalako gogora. Horretaraxe narama barruak. Eta, bestalde, ikuskizun eszenikoa egin nahi nuen, ahoz transmititu diren tradiziozko lo-kantak geroan ere transmiti daitezen lagundu nahi nuen. Jakina, denboraren joanean, egokitu egin behar dira, eta horixe egin dugu guk, Malen Iturrik eta biok, lo-kanta horiek gure garaira egokitu, gure izaerarekin eta bizimoduarekin bat datorren moldera ekarri, oraingo garaira eta hemengo toki honetara ekarri. Ekarpene horixe egin nahi nuen: “Gaur, hemen, hauxe dago”, esanez bezala. Eta momentuko gauza izatea nahi nuen. Nahiz eta emanaldia diskoan eta bideoan grabatu, saioak oso momentukoak izan behar zuen, tokiaren eta momentu energetikoaren arabera, belauenez belauenez ahoz aho transmititu diren lo-kantak gure zeluletan baitaude, dar-dar egiten dute, eta dardarazi ere egiten gaituzte.

Zer esan nahi duzu, dardarazten gaituztela?

Bartzelonan nengoenean, adibidez, euskaratik eta hemengo kontuetatik aparte bizi nintzen. Baina euskaraz zerbait aditu, euskarazko kanturen bat edo zer edo zer, eta dar-dar egiten zuen nire barruak: jatorria da, historia, belaua... Horiek gogoan neuzkaila lotu nintzaion bideari, hasi nintzen ikertzen, pausoak ematen... “Ekin!”, esan nion neure buruari eta, orduan, proiektuaren oinarrietan jartzen zuen epea kontuan hartu, sei hilabete egin behar nuen lana ikusi eta “Arraioa!”, Maleni [Iturri] hots egitea pentsatu nuen.

Laguntzaile?

Ez laguntzaile bakarrik. Duela hiru urte ezagutu genuen bata bestea Bartzel-



lonan. Topatze motza izan genuen, laster berak alde egin baitzuen handik. Hala ere, bagenuen espazio bat, izateko eta sentitzeko gune bat, artistikoki partekatzen genuena. Horrelaxe, hots egin nion: "Aizan, halako zeukanat esku artean. Zer deritzan? Etorriko al haiz?". Ez genuen askorik hitz egin beharrik izan. "Ados!", esan, eta etorri zen. Eta amamaren etxera joan ginen, Alzedora (Araba), eta hantxe egin genuen lan, bederatzi egunez.

Zazpi kanta hautatu zenituzten.

Bilatzen hasi eta nebak Azkueren kantutegia zeukan. Handik jo nuen. Eta emanaldiarekin batera osatu dugun diskoko azken lo-kanta ez beste guztiak Azkuerenetik hartu ditugu. Olatz Zugastiren *Bulun bulunka* ere kon-tuan hartu genuen. Azkue hartu, zein eta zein kantatu erabaki eta banan-banan aletu genituen, zer adierazten ziguten bilatu: tokiak, melodiak, giroak...

Nola egin zenuten ideia, edo intuizio bat, emanaldi?

Galderak besterik ez genituen buruan, eta, bestalde, galdera haiek gureak ziren, geure buruari egiteko modukoak. Malenek eta biok geure haurtzaroz hitz egin behar izan genuen, geure bizi-esperientziaz, se-

xualitatearekiko harremanaz, familiaz... Intimitate handiko markoan mugitzen hasi ginen, baina horixe dute lo-kantek eta haiei buruzko galderek, gauza asko jartzen dituztela ezbaian. Bederatzi egunetan elkar-tu eta proiektuari forma ematen hasi gi-nen Malen eta biok. Orain, kankak aditu eta haiekin batera datozen irudiak ikusi, eta garaian zein elkarrizketa izan genuen konturatzen gara, erabakitako irudiak halako elkarrizketari lotuta daudela, alegia. Ikaragarria da!

Kontserbatorioan ez zuten kontuan hartzen gorputza ere hortxe dagoela, eta emozioak ere hor dabilzala, horrek guztiak ahotsari eragiten diola"

Bideak erabaki du emanaldia...

Oso intuitiboa izan da dena, bata bestearen on-dotik etorri dira bultzadak. Naturaren hotsak grabatu, laku batera joan, harri bat bota, grabatu, eta lo-kantarekin batera proiektatu... Jakin-minak gidatu du gure prozesua. Malen kasuan, soinuak bizi du, toki guztietara darama grabagailua. Gero, grabatu duena lantzen duela esaten du berak. Ni, berriz, kamera hartuta ibili naiz. Eta Alzedo hutsik zegoen, guretzat beste inorentzat ez! Ez genekien zein izango zen emaitza, zer itxura izango zuen ere ez, guk prozesu artistikoa bete genuen, biok batera, elkarrekin biziz, gauza asko nahastuz, *Loa, loa, laguna* dekantatu den arte.



LEHENA

"Lehen fotomuntatzea, adibidez, proiektuan guztiz murgilduta bost egun eman eta gero egin genuen, goizeko ordu bietan! Hainbat elkarrizketa izanak genituen ordurako, guztiz nekatuta geunden, eta, orduantxe, lehen fotomuntatze hura. Eta hura ikusi eta huraxe zela bidea erabaki genuen. Harrezkero, bata bestearen atzetik sortu genituen irudiak, proiektuak zentzua hartu zuen".

PREKARIZAZIOA

Malenek kontatzen du Alacanten, adibidez, kultur proiektuak bultzatzen dituztela, baina dirurik eman gabe. Alegia, ikusgarritasuna ematen diete, besterik ez. Beste batzuetan, berriz, produkzioa laguntzen dute, baina ez dago soldata jasotzeko dirurik. "Artistok estrategia egunero ko bat asmatu behar dugu bizi ahal izateko. Prekarizazioak estresa dakar, eta estres hori sormen prozesuan ageri da".

Azken hitza FANTASIAK

"Ez dakit zer etorriko den orain. Batetik, ikuskizun performatibo hau batera eta bestera mugitu nahi dut. Bestetik, lo-kanta gehiago bil-du, hemengoak nahiz beste lekuren batekoak, ikertu, interpretatu, lo-kanten artxibo bat osatu... Fantasia horiexek ditut buruan".

Ikuslearen barrua hunkitzeko moduko saioa da...

Oso gauza sentsoriala, euskaraz jakin gabe ere, edo lo-kan-tak direla jakin gabe ere, segitzeko modukoa. Feminismoa, lesbianismoa... gauza asko ageri dira saioan, "normaltasu-netik" kanpo edo mugan daudenak. Gure lanak asko du hortik, irekitzetik, asko sentitzen duen gorputz batetik bizitzetik, sentitzera arriskatzen den gorputzetik. Gure buruak itxi beharrean, ireki egiten ditugu, sentipen guztiak azalera daitezten ahalegindu gara. Batzuetan, prozesu gogorak agertu zaizkigu, intentsitate handikoak. Nik esango nuke zintzo jokatu dugula, arriskatu egin dugula, barruko bul-tzadak gidatu gaituela. "Eta, hori ikusten duenean, zer pentsatuko du zure amak?", esan zidan behin Malenek. Hori ere hor dago, baina ezin horri begira gelditu. Guk geurea egin behar dugu, zintzotasunez.

Diote prozesu sortzaile guztietan zehar krisialdia izan ohi dela.

Niri dagokidanez, sortzen ari naizenean ez dut krisirik nabaritzen. Pulsioa hain da handia, sortzeko irrika, ez dago krisirik. Dago intuizioa, dago arrazoiak... sortzeko pulsio horren atzetik noa ni. Prozesu sortzaileak duen koska, nire ustez, kidearekiko harremana da, elkartzen gaituena, eta, era berean, banatzen gaituena. Nork bere egoa dauka, nork bere izaera. Gure kasuan, bi ginen lanean, prozesu intentsitate handiko batean. Ez genuen bi orduko saio bat lanean egiten, eta nor bere etxera joaten. Ez. Elkarrekin egin ditugu bederatzi egun, zazpi kanta ontzen, fotomuntatze eta gainerako. Ikaragarritzko prozesu indartsua izan da.



Maiden Lasa eta Malen Iturri.

Eta orain, egin eta gero, zer dio zure barruak?

Gazi-gozoa izan da emaitza... Lehen saioa, batik bat. Bi asteen burutu genuen, Garaionen, gure barruko tokiak ibiliz, eta gure materialarekin. Gero, Gasteizen egin genuen aurkezpena, Oihanederren. Aretoko teknikariarekin hitz egiteko denbora gutxi izan genuen, aretoa bera estua zen, akatsak izan ziren, eta akats haiei adi egon nintzen. Lagun batek ere galdetu zidan, zer moduz sentitu nintzen emanaldian, nire barrua neure familiaren aurrean erakusten, eta ez nekiela erantzun nion, buru-belarri jardun nuela sortzen, guztiz murgilduta. Orain, berriz, proiektuak bere bizi propioa hartu duela konturatzen naiz, hortxe dabilela. Ni nola sentitzen naizen... bada, oraindik ez dakit!

Nola definituko zenuke zeure burua?

...Ez dakit, bada!... Artista sortzaileztat, beharbada... Libre nabilenean, guztiz aske, ahots eta gorputz pulsioa naiz. Formazioz, denetarik ikasi dut, eta bukatu, berriz, ezer ez, zeren batean halako interesatzen zait eta, bestean, al-diz, beste halako. Handik eta hemendik edan dut, nahiz eta oinarrian kantutik natorren, kantu klasiko ikasketak egin nituen, baita gorputz arteterapia ere, kantuari bestelako bideak ireki nahian. Kontserbatorioan ikasi nuen kantua, baina han ez zuten fonazio-aparatua besterik lantzen; laringea atzera eta aurrera beti. Ez zuten kontuan hartzen gorputza ere hortxe dagoela, guztiz presente, eta emozioak ere hara eta hona dabilzala, horrek guztiak ahotsari eragiten diola...

Hezkuntza horrek ez zintuen asebate...

Ez. Ariak kantarazten zizkidaten, eta

ariak badu testuingururik, historiari, istoriorik... "Orain irribarre egin behar duzu... Orain, maiteminduta zaude... Orain, besoa horrela jarri...". Robot bat irribarrez bezala. Era jakin batera erakusten dizute txikitandik, arauaren arabera, baina barruak besterik agintzen dizu, eta jotzen duzu eskuin, jotzen duzu ezker, bila. Nik, bila ibiliz, gorputz arteterapia aurkitu nuen eta, orduan, bestelako bideak ireki zitzaizkidan: neure gorputza ibiltzen hasi nintzen. Horretarako aukerak, berriz, Bartzelonan aurkitu nituen.

Nola aurkitu zenituen zeure gorputza ibiltzeko bide horiek?

Antzerkia aurkitu nuen, arte dramatikoa ikasten hasi nintzen... Baina han ere eskema itxiak ikusi nituen. Nik antzerkia ikasi nahi nuen, baina ez modu hartara. Azkenean, ondoena datorkidana hartu nuen. Munduaren kontra, neure bidearen bila jo nuen. Artista bat aditu nuen, barru-barruraino hunkitu nindue-na. "Zer da hau, ordea?!". New Yorken zegoela jakin nuen, eta haraxe joan nintzen, hura ezagutzera. Ikastaro bat egin nuen berarekin, baina ikastaroan baino gehiago, bidean ikasi nuen. Libre nabile-nean sortzen dut ondoena, nire barruko fluxu sortzailearekin konektatzen dudanean. Horrelaxe sortzen dira gauzak, eta hortik ikasten dut. Lagun batekin joan nintzen New Yorkera, hura performance giroan zebilen, eta, azkenean, geure ekitaldi performatiboa egin genuen.

New Yorken, alegia?

Bai, hantxe, laku baten ertzean, "Emakumea, gorputza, natura" izeneko jardunaldietan. Gero, Bartzelonara itzuli eta bila segitu nuen. Argentinatik etorritako dramaturgo bat zetorrela entrenamendu jakin bat egitera eta interesatzen zitzaidala? Bada, harexengana, entrenamendu hura egitera. Gero, beste eskola bat aurkitu nuen, Gorputz-espresio dramatikoaren laborategia: antzerki eskola bat zen, baina ez ofiziala, irakaskuntza irekiagoa, atseginagoa eskaintzen zuten han. Tokia, maitasuna, sostengua eta akonpainamendua eskaintzen zuten, nork bere sortzeko modua aurki dezan, nork bere lekua... Denok gara artista, baina sortzeko garaian nork bere gustua du, nork bere lan egiteko modua... Eta holaxe... ●

MARCOS
skindegia

**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)



Indultuen suak



DAVID BOU
DIRECTA-KO KAZETARIA

Iritsi zen udako solstizioa, eta berriz ere suak piztu ziren Herrialde Katalanetako lurralde osoan zehar. Aurten, COVID-19ak behartutako iazko etenaren ondoren, inoiz baino gauza gehiago zeuden erretzeko. Alarma-egoerak, etxeratze aginduak, maskarak, isunak, eta epaileek garai nahasi hauek aprobeztatuta eman dizkiguten epaiak.

2017ko urriaren 1eko autodeterminazio-erreferendumetik eratorritako 3.300 errepresaliatu baino gehiagoren zerrendak zabaltzen jarraitzen du, eta auzietako batzuk espetxeratze zigorrekin ebazten hasi dira. Adrián Sas, Fernando Garrobo eta Marcel Vivet bide triste bat irekitzeko arriskuan daude: ustezko bidelagun batzuen ekintzei esker askatasuna galtzen duten ekintzaile independentistena.

Lehenik eta behin, Generalitateko zerbitzu juridikoak akusazio partikular gisa aurkeztu direlako beren aurkako prozesu judizialean, ekintzaileak salatu zituzten Esquadra Mossoen ordezkarigisa. Bigarrenik, ziega batean amaitu badezakete, jada desagertutako Convergència i Unió (CiU) 2015ean PPren Zigor Kodearen erreformari emandako bultzadari eta babesari esker delako. Erreforma hark gogortu egin zituen desordena publikoekin lotutako delituentzako zigorrak.

Irudi horrek talka egiten du *Procés*-eko bederatzi lider sozial eta politikoen espetxeko irteeraren argazkiarekin, Pe-

Rubenek, Angelak eta
Aturem el Parlament
ekintzagatik zigortutako
beste sei pertsonen
bost urte baino gehiago
daramatzate beren
indultu eskaeraren
ebazpenaren zain

dro Sánchezen gobernuaren indultuak –partzialak eta itzulgarriak– jaso berri. Albiste ona da Kataluniako politikarientzat eta jendartearentzat zalantzarik gabe, baita beraientzat zein maite dituztenentzat ere. Baina Jordi Turull ikustean –adibidez– graziazko neurria jasota Lledoners atzean uzten, ezin dut ekidin Angelarekin edo Rubenekin oroitzea.

Ekainaren 15ean hamar urte bete ziren 2011n milaka lagunek Kataluniako Parlamentuaren inguruan protesta egin zutenetik, Artur Masen gobernuak zerbitzu publikoetan egindako murrizketen aurka. M-15 mugimenduaren une gorena zen, eta botereak efektu-kolpe bat behar zuen mobilizazioa geldiarazteko. Hemeretzi pertsona epaitu zituzten, eta Espainiako Auzitegi Nazionalak absolbi-

tu egin zituen, epaiketan Turull bezalako diputatuek auzipetuen aurka deklaratu bazuten ere.

Baina Fiskaltzak eta akusazioek, tartean Kataluniako Gobernuak berak, helegitea aurkeztu zuten. Azkenerako auzipetuetako zortziri hiru urteko kartzela zigorra ezarri zien Espainiako Auzitegi Gorenak, estatuko goi erakundeen aurkako delitu bat egotzita. Erabakia Manuel Marchenak sinatu zuen, urte batzuk geroago *Procés*-eko preso politikoak zigortuko zituen magistratu berak. Eta bere argudio nagusietako bat akusatuek sustatu zuten ustezko "indarkeria giroa" ("*violencia ambiental*") izan zen, gerora *Procés*-aren aurkako epaia idazteko erabili zuena. Nork pentsatuko zuen orduan betiko konbergenteek, lege eta ordenaren defendatzaile amorratuek, beren botika probatuko zutenik?

Bada, Rubenek, Angelak eta *Aturem el Parlament* ekintzagatik zigortutako beste sei pertsonen bost urte baino gehiago daramatzate beren indultu eskaeraren ebazpenaren zain –zorionez, espetxeratzea geldiarazten du eskaerak bien bitartean–. Auzitegi Konstituzionalak auzipetuen helegiteak atzera bota zituen joan den hilabetean, gertaeretatik hamar urtera, eta orain Estrasburgoko Auzitegiko bidea libre dute. Baina beren bizitzek hari batetik zintzilik jarraitzen dute, demokrazia eragozten duten legeak erraunts bihurtuta ikustea amesten dugun bitartean. ●

Argiaren faktura



JUNE FERNÁNDEZ
KAZETARIA

Pasa den ekainean indarrean sartu zen Hego Euskal Herrian argia tarifatzeko sistema berria, atsedendu orduetan salbu energia kontsumoaren prezioa garestitu duena. Energia aurrezteko, eraginkortasuna eta autokontsumoa sustatzeko neurri gisa aurkeztu du Espainiako Gobernuak. Carmen Calvo presidenteordeari irratiko elkarrizketa batean galdetu diotenean, zera erantzun du: "*Temazoa* ez da garbigailua noiz jartzen den, nork jartzen duen baizik". Hau da, feminismoaz baliatu da arreta fokua aldatzen saiatzeko.

Estrategia kaskarra, genero ikuspegi falta baita, hain zuzen ere, neurria kritikatzeko arrazoiatariko bat. Emakumeok garbigailu gehiago jartzen ditugu baina, batez ere, presenteago dugu zer arropa garbitu behar den edota detergentea erosi behar dugun. Horri karga mentala deitzen zaio eta argiaren faktura berriak areagotu du, erlojuari begira egin behar

ditugulako orain etxeko lan gehienak.

Ez da harritzekoa, halaber, politika honen klase ikuspegi falta. Izan ere, *temazoa* ez da soilik garbigailua nork jartzen duen, baizik eta nortzuk ditugun ordua programatzeko aukera ematen duten etxetresna elektrikoak eta nortzuk dituzten argiaren faktura ordaintzeko zailtasunak. Jakin badakigu pobrezia energetikoa bizi duten herritarren gehiengoa emakumeak direla eta, genero sozializazioa medio, hornidura-etxetresna eta zorrek berebiziko sufrimendu emozionala eta estigma soziala eragiten dietela. Emakume horien profila ez dator bat Calvoren iruditerian nagusi diren emazte heterosexualekin: adineko emakume alargunak –gogora dezagun Katalunian hildako Rosa, berotzeko kandelak erabiltzen zituen argia moztu ziotenetik–, migranteak, ama bakarrak eta etxeko langileak dira.

Zaugarritasun horren ifrentzua

energiaren multinazionalen administrazio-kontseiluetan aurkituko dugu: Repsol, Endesa edota Naturgy enpresen zuzendaritza-postuen %85 inguru gizonen bereganatzen dituzte. Korporazio horiek dira –baita Iberdrola ere– kutsadura gehien eragiten dutenak baina, paradoxikoki, trantsizio energetikoa bultzatzeko aurrekontu publikoen onuradun nagusiak izatea lortu dute.

Petronorrena gertuko adibide argia dugu: Muskizeko itsasadarrera petrolio isurtzeagatik eta koke planta baimenik gabe eraikitzeagatik zigorrak jaso ditu eta, aldi berean, Hidrogenoaren Euskal Korridorearen proiektuan Jaurilaritzaren bidelagun nagusia da; Europako Next Generation funtsetara aurkeztutako egitasmoen artean potoloena.

Vanessa Álvarez ekofeministari *El Salto*-n irakurri diot energiaren inguruko eztabaidetan emakumeak biktimaren rolean agertzen direla gehien bat, eta ez eraldaketarako agente gisa. Aitzitik, ez da kasualitatea Kataluniako Pobrezia Energetikoaren Aurkako Aliantzaren kide gehienak emakumezkoak izatea, baita Petronorren kalteak salatzen dituen Meatzaldea Bizirik plataformakoak ere. Plataforma horren bozeramailea den Sara Ibañez obstetra jubilatua kontatu du 1992an bigarren abortua izan zuenean egin zela aktibista, eskualdeko emakumeen arazo ginekologikoak Petronorren jardunarekin lotu zituelako.

2018an, Trantsizio Energetiko Ekofeminista baten aldeko Emakumeen Sarea sortu zuten 150 lagunek Bilbon. Besteak beste, plaka fotovoltaiakoak instalatzeko tailerrak egin dituzte, ahalduz feministen ikuspegitik.

Autodefentsa eta autoantolakuntza dira energiaren monopolio patriarkal eta kapitalistari aurre egiteko bi gakoak. Hori izan behar litzateke feministontzat *temazoa*. ●



PAULA ESTÉVEZ

Non daude emakume entrenatzaileak?



**AINHOA AZURMENDI
ECHEGARAY**
KIROL AHOLKULARIA
ETA EHU-KO IRAKASLEA

Eta zuk, txikitxo, honetan [kirol zehatz batean] jokatzan duzu?". Horixe galdetu zion irakasleak nazioarteko emakume jokalaria bati, gizonez betetako entrenatzaileen formakuntza-saioan. Esaldiaren paternalismoaz mintza nintke, edo maila hartako kirolari hori *bere* esparruan ere ezezaguna izateko hamai-ka arrazoiez. Baina ez; oraingoan, eremu maskulinoetan emakumeek jasaten dituzten egoera ezerosoek eragiten dituzten ondorioak ekarri nahi ditut gogora. Maskulino hitza aipatzean, genero kulturaz zein egituraz ari naiz: hain zuzen, tradizioz gizonezkoei esleitutako estereotipoen baitan eraikitzen diren gizonez osatutako espazioez. Oztopoak oztopo, emakumeak ari dira gutxinaka norbere gustuko kirolak praktikatzan. Baina zer gertatzen da kirolariena ez den beste estamentuekin? Hau da, ezagutza teknikoak, erabakiak hartzeko segurtasuna, eta kirolariak zuzentzeko gaitasuna eskatzen duten rolekin? Non daude emakume entrenatzaileak?

Munduan zehar zein gurean egin diren ikerketek, agerian utzi dute emakumeak kirol arloko teknikariak ez izateko funtsezko arrazoiak, besteak beste, egitura maskulinoetan jarduteko estiloak, gizonezko arteko sare informalak, emakumeen gaitasunak etengabe zalantzan

jartzeko aztura eta bakardadea direla. Horrez gain, emakume entrenatzaileen eredurik ia ez izateak, etorkizunari begira haien burua entrenatzaile lanetan irudikatzea eragozten du. Horrek guztiak, sarritan, norbere baliabideak nahikoak ez ote diren pentsatzera eramaten ditu emakumeak.

Eta horren aurrean, kirol arloko erakundeak zer? Orain arte bezala jarraitu dezakete, teknikarientzat antolatzen diren formakuntza guztietan batik bat gizonezkoak jarritz irakasle edo aditu; hizkuntza erabat maskulinoa erabiliz; edukietan kontuan ez hartuz emakume kirolarien ezaugarri, behar eta interesak; materialen estereotipoak errepikatuz; eta emakumeei talde nagusiak entrenatzeko aukera ematea ekidinez. Nahikoa ez balitz, entrenatzaile izateko erabakia hartzen duten emakumeei iruzkin sexistak egin eta inguru matxista horietatik aldentzerara *gonbidatu*? Ala benetan gaiari seriotasunez heldu eta emakume entrenatzaile gehiago egoteko estrategiak abian jartzeko prest daude? Ez da denbora kontua, kirol arloko tradiziozko maskulinitasuna iraultzeko prestutasuna baizik.

Hau da, zalantzarik gabe, datozen urteetan kirol arloan berdintasun ikuspegitik edukiko dugun erronka handi-
netako bat. ●

Konfesio zuri-burgesa



**ITZIAR BARDAJI
GOIKOETXEA**
IRAKASLEA

Atzo joan nintzen txertoa jartzera. Txertoa jasotzeko erabakia hartu nuen, gizarteak egin duen moduan, gutxieneko hausnarketa bat egin gabe. Ni ez nau gaixotasunari beldurrik mugitu, baizik eta –eta lotsatuta aitortzen dut– praktikotasunak: mugak, hegaldiak, jaialdiak, lanak, presio sozialak. Ez dut PC-Rrik ordaindu edo faltsifikatu beharko.

Ez dakit zein tamainako negozioari ari natzaion ekarpena egiten, zenbat ustelkeria egongo den txertoen atzean. Pertsona gaztea eta osasuntsua naiz, eta txirotutako herrialdeetako pertsonengana txertoak oso mantso iristen dira. Eta nik ezjakinarena egiten dut. Txertoa jar-

tzeari uko egingo banio, ziurrenik albo-ondorioekiko beldurragatik izango zen. Lotsa. Lotsa zuri burgesa –bai, hemengo langileak zapaltzaile burgesak gara mundu mailan, bada hau onartzeko garaia–.

Txertoa jarrita hamabost minutuz bertan geratzeko esan zidaten. Aulki mordo bat koadrikula perfektuan kokatuak, denak norabide berdineran baina inora begira. Formazioaren soldaduen artean begiradarik, interakziorik ez. Mugikorrari bai.

Gorputza eta arima arraro geratu zaizkit. Hobe sentituko naiz nire txerto-agiria eskuan Kanariar Uharteetan lur hartzen dudanean. ●

Udako siesta bateko ametsa



ENEKO OLASAGASTI
GIDOILARIA ETA ZINEMA
ZUZENDARIA

Iratzargailua ipinita neukan Frantziako Tourreko etapako azken kilometroak ikusteko, baina esnatu naizenerako bukatuta zegoen. Loaren aztarnak gainera kendu ezinik Twitterera jo dut sailkapena nola geratu den jakiteko eta ezusteko pozgarriarekin egin dut topo. Azken orduko albiste batek birtxio mordoa zeukan euskal txiolarien artean. Bolo-bolo ibilia zen eskaera baten inguruko albiste zen: Euskal Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren eraketa. Oraingoan, PNV-PSEren aldeko botoekin tramitera onartu du Gasteizko Parlamentuak. Kontxo, pentsatu dut, azkenean albiste on bat. Baina ez hori bakarrik. Albiste irakurtzen jarraitu eta hara non iragartzen den ere Euskal Ikus-entzunezkoen legea prestatzeko oinarriak ipiniko direla, Voxena izan ezik, Parlamentuan ordezkaritza duten alderdi guztien adostasunarekin. Esna nagoela baieztatu eta gero, ez da posible, pentsatu dut, gezurretako albiste behar du.

Irratia piztu dut albiste berehala baieztatzeko asmotan. Eta bai. Lerro buruetan lehenengo. Egia esan ez da

Ez da posible,
pentsatu dut,
gezurretako albiste
behar du.
Irratia piztu dut
albiste berehala
baieztatzeko asmotan.
Eta bai

gutxiagorako. Segidan, zuzeneko konexioa Gasteizko Legebiltzararekin. Hitzek hitz baieztatu dute Twitteren irakurritakoa. Eta ez hori bakarrik. Berriari Kultur sailburuaren hitzak gehitu dizkiote, bigarren albiste potolo bat iragartzeko: "Eragile desberdinekin elkarriketak hasi ditugu Euskal Antzerki Konpainia Nazionalaren sorrerarako pausoak ematen hasteko. Azken batean konturatu gara egin beharreko diru inbertsioa ez dela hainbestearinokoa, ez

behintzat, AHTaren kilometro baten kostuarekin alderatzen badugu". Non nago?, pentsatu dut, Euskal Herrian?

Gaueko Teleberria ere albiste berdinarekin zabaldu dute, eta ez nolanahi gainera. Lehendakaria bera da pantailan ageri dena. "Ahalegin handia egin dugu azken urteetako norabidea zuzendu ahal izateko. Eskerrak eman nahi dizkiogu Pantailak Euskaraz ekimenari, plataforma handietan euskararen etorkizuna bermatu nahi izanagatik. Hemendik aurrera, plataforma garrantzitsuenekin sinatu dugun akordioari esker, bermatu egingo baitira bai euskarazko azpidatziak eta baita bikoizketa ere haurrei zuzendutako filmetan. Bestetik esan, EITBekin dagoen Kontratu Programa birplanteatuko dugula, urtean bospasei euskarazko pelikulatant parte hartu dezan. Bat handia izateko txiki asko egin behar direlako", esanez bukatu du Iñigo Urkulluk.

Iratzargailuak jo du. Etapa azken kilometroetan da. O'Connorrek irabazi du. Lehen euskalduna, Pello Bilbao, hamaikagarren postura jaitsi da. Zenbakiak orain ere kontra. ●

Lan eskaintzak

Harreman Instituzionalerako Arduraduna (iraillean hasteko)

Funtzioak:

- Babesle/erakundeekin harremana eta jarraipena. Babesle-kartera zabaltzea.
- Proposamen ekonomikoak prestatu eta aurkeztea.
- Deialdi publikoen kudeaketa eta jarraipena.
- Hitzun komunitateetako eragileekin proiektu batzuk kudeatu.

Eskaintzen da:

- Ordutegi malgua eta 3-12 hilabete arteko probaldiaren ondotik, kontratu mugagabea.

Lankidetzat teknikaria (lan poltsa osatuko da)

Funtzioak:

- Hitzun komunitateetako eragileekin proiektuak kudeatu.
- Euskal Herriko proiektuak kudeatu.
- Diru laguntza deialdiak formulatu.
- Proiektuak komunikatu web orrian, sare sozialetan eta hedabideetan.

Eskaintzen da:

- Garabideko lan-poltsan sartzea.

Curriculumak uztailaren 22a baino lehenago garabide@garabide.eus helbidera "Deialdia-Harreman Instituzionalak" ala "Deialdia-Lankidetzat Teknikaria" erreferentziarekin.

Xehetasun gehiagorako:
www.garabide.eus

garabide
erabakitzaileak

hamaika

#NikHamaika

AKTUALITATEA · EUSKAL HERRIA ZUZENEAN · KULTURA DIGITALA · BIZIMUSIKA



hamaika.eus

 [LTD, Euskaltel]

 @11amaikatb

 @HamaikaTb

 @HamaikaTb

 HamaikaTB

HONDALEA

Eskultura bat Kontxako badiaren bihotzean

Ekainaren hasieran zabaldu zuten Santa Klara uharteko (Donostia, Gipuzkoa) itsasargi zaharberrituaren atea. Barruan, Cristina Iglesias artista donostiarraren eskultura: Hondalea.

Denbora gutxian agortu ziren artelana ikusi ahal izateko txartelak, museoaren eta eskultura publikoaren arteko nahasketa baita, babestu beharreko ingurune natural batean kokatua, gero eta turistifikatuagoa dagoen hiriaren itsasertzeko magalean.

 PERU IPARRAGIRRE  DANI BLANCO

Kontakizun ofizialaren arabera, 2016an piztu zen Hondalearen proiektuaren ideia. Donostian Europako Kultur Hiriburutzaren bueltan antolatutako egitarauari hasiera eman zitzaion egunean jaso zuen Cristina Iglesias (Donostia, 1956) artistak Urrezko Danborra, hiriak norbanako eta taldeei ematen dien sari gorena. Horrela esan zuen Eneko Goia alkateak: “Kulturari eskainitako urte honetan argi zegoen Iglesiasen muntako artista batek bere hiriaren aitorpena jaso behar zuela”. Donostia Turismo erakundearen administrazio kontseiluak hautatu zuen Iglesias hiriaren irudia munduan zabaltzen dutenei eta hiriaren alde egiten dutenei gordetzen zaien sarirako.

Izan ere, ibilbide artistiko luze, oparo eta saritua du Iglesiasek, 80ko hamarkadan hasi zen eskulturak erakusten, eta 1993an parte hartu zuen lehen aldiz

Veneziako Bienalean. Bere eskulturetan ohikoa da elementu naturalen erreproduktzioa eta eraikuntzako materialen erabilera. Hainbat hiritan topa daitezke bere esku-hartzeak, Anberesko (Flandria) Diepe Fontein (Iturri Sakona, 2006) eta Toledon (Espainia) hiru zatitan banatutako Tres Aguas (Hiru Putzu, 2014) aipa daitezke. Azken horiek eta Hondalea antzekoak dira, kontzeptu orokorrarengatik eta baita kokalekuarengatik ere, zeharka (Kuriositatez, Toledoko Santa Clara komentuan da esku-hartzeetako bat, beste bat erabilerarik gabeko ur-dorre batean).

Naturan ere egin ditu esku-hartzeak, 1994an Norvegiako Lofoten uharteetako batean kokatu zuen aluminiozko eskultura bat, erramu hostoak irudikatzen dituen, eta Mexikoko Espiritu Santo uharteko uretan hormigoizko Estancias Sumergidas (2010) ikusgarriak hondoratu zituen, esaterako. Fikzio artistikoak deitzen die,

naturaren eta kulturaren arteko harreman bat, non eskulturak natura imitatzen duen, ikuslerik gabeko naturaren lekua hartuz batzuetan, ikusleari naturaren irudikapena itzuliz besteetan.

Txillida, Oteiza, Basterretxea. Donostiako itsasertza janzten dute haien eskultura monumentalek, Haizearen Orrazia ezin ezagunagotik Bakearen Usoa hadin eta zuriraino. Tartean badaude beste lan batzuk, Moneoren Kursala kontuan har daiteke agian, Txillidaren Monumentua Flemingi, Salazarren Omenaldia Clara Campoamorri... 2016ko aldi hartan Eneko Goiak Iglesiasi esan zion ezinezkoa zela haren lanik ez egotea horien artean. Hortik abiatu omen zen asmoa, eta Iglesiasek Santa Klara uhartea aukeratu zuen bere esku-hartzerako. *El País Semanal* aldizkarian adierazi zuenez, zalantzan egon zen zein leku hautatu: Ulia eta Urgulleko Ingelesen Hilerrria ere aukera po-





sibleak ziren. Baina azkenean uhartea hautatu zuen, uharteko itsasargia, hiritik urrun baina gertu dagoelako, publikoa baina ezezaguna den lekua delako, edo hala zelako, bederen.

2016TIK GAURDAINO

Prozesua luzatu egin zen. 2017ko apirilean aurkeztu zuten artistak eta Donostiako Udalak Santa Klara uharteko itsasargian eskultura jartzeko proiektua. Pasaiaiko Portu Agintaritzak kudeatzen zuen itsasargia, eta eraikinaren lagapena eskatu zion Donostiako Udalak 2018ko irailean, 50 urterako. Orduan egin zuen eraikina birmoldatzeko proiektua Jabier Lekuona arkitektoak, itsasargia erabat hustu eta lau metroko sakonerako zuloa egin behar baitzen eskultura jartzeko. 273.000 euroko aurrekontua gorde zuen horretarako Donostiako Udalak, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 200.000 eurokoa. Azkenean, 2019ko apirilean heldu zen itsasargiaren lagapenaren onarpena, 30 urterako azkenean, 5 urtez luzatzeko aukerarekin. Eskultura fabrikatu eta instalatzeko 1,4 milioi euroko kontratua onartu zuen orduan udalak. Tarte horretan, Haritzalde Naturazaleen Elkartek, Ekologistak Martxanek eta BizilagunEkin plataformak uhartea babesteko eskatu zuten, eta Eguzki talde ekologistak eskul-

tura bertan jartzeak uharteko bisitarien kopurua ez zezala handitu eskatu zuen.

2019ko urrian abiatu zituzten itsasargia husteko lanak, horretarako behar zen garabia helikopteroz eraman ostean. Hilabete beranduago, proiektuaren aurrekontua 1,5 milioi eurotan handitzea onartu zuen Donostiako Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak. Igoera hori salatu

Denbora gutxi behar
izan dute Hondalea
zirkuitu turistikoan
txertatzeko

eta obra gelditzeko eskatu zuten orduan Donostiako EH Bilduk eta Elkarrekin Donostiak, eta udal gobernuari ingurumen plan bat, itsasargiaren industria ondarearen plan bat eta plan ekonomiko bat eskatu zizkioten. Proiektuak, ordea, aurrera egin du, nahiz eta ez duen arazo gutxi izan. Obretako kontratua luzatu behar izan zuten, eta COVID-19aren pan-



demiak ere oztopatu ditu lanak. Azkenean, proiektuaren aurrekontua puzean joan da.

Ekaineko lehen asteburuan zabaldu zuten Hondalea. Aurreko egunetan sinposio bat egin zuten Aquariumean, *Kostalde Harritsua – Geologia, Ekologia eta Eskultura* izenekoa, Hondalea aitzakia gisa hartuta. San Telmo Museoa ikusgai dago obraren bueltan osatutako erakusketa bat ere, irailera bitarte. Ekainetik irailera dohainik bisita daiteke itsasargiko eskultura, nahiz eta horretarako izena eman behar den. Hasieran seiko taldeak baziren ere orain dela gutxi hamar lagunera zabaldu dituzte bisitak. Zabaldu eta berehala bete ziren, hala ere, Hondalea bisitatu ahal izateko leku guztiak. Urrian zehar, baina, bisita gidatuak egingo dituzte badian, eta itsasargian amaituko da ibilbidea; 30 euro balio du sarrera bakoitzak.

IRREGULARTASUNAK

Ekain hasieran, halaber, Donostiako Udaleko langileen LABeko sail sindikalak itsasargiko obretan irregulartasunak salatu zituen, Lander Arbelaitzek hedabide honetan bertan jaso zuenez. Udal gobernuari helarazi zioten eraikina birgaitzeko lanen zuzendaritza lizitaziorik gabe egin zela, eta egindako galderen aurrean eran-



tzunik jaso ez zutenez Gipuzkoako fiskaltzaren eskuetan utzi zuten informazioa. Eneko Goia alkateari ere txostenaren kopia igorri zioten.

Besteak beste, LKS Fhecor enpresari eraikina birgaitzeko lanak esleitzeko erabilitako prozeduran aurkitu zituzten irregulartasunak. Itsasargiaren estaldura kendu eta fatxada mantenduz eraikina eraisteko lanen zuzendaritza LKSri zuzenean lizitatu zioten, 15.000 eurotik beherako kontratu txikien prozedura baliatuz. Baina eskultura itsasargian kokatzen hasterakoan ere eraikina birgaitzeko lanen zuzendaritza enpresa berak egin zuen, inongo lizitaziorik gabe. Sindikatuaren arabera, udaleko proiektu eta obren departamenduko zuzendari Alfonso Vázquezek tramitatu zuen zerbitzu hori lizitatu gabe, zuzenean enpresari esleitzuz.

Horrez gain, Gipuzkoako Fiskaltzari eskatu zioten ikertzeko ea nola ordaindu dion Donostiako Udalak LKS-Fhecor enpresari eraikina birgaitzeko lanen zuzendaritza, lizitaziorik ezean erakunde publikoak ezin baitio zuzenean ordaindu. Obren zuzendaritza LKSk hartu zuen bere gain, eta bere ardura izan da lekuan bertan lanak nola zihoazen gainbegiratzeari. Moyua enpresa arduratu da eraikina eraitsi eta behin eskultura barnean

zela gero berriz ere berreraikitzeaz. Moyuak 1,46 milioi euroko aurrekontua egin zuen lanaren lizitazioa eskuratu zuenean, proiektu hori onartu zuen udalak, eta azkenean 1,8 milioi euro kostatu zaiola adierazi du. Adjudikazioan iragarri zuena baino %23 gehiago.

HONDALEA

Obra, hala ere, hor dago, ikusgarri, sarre-
ra lortu ahal izan duenarentzat. Zer da, beraz, Hondalea? Beñat Sarasola idazlearekin batera egindako hausnarketatik dator izena. Hondalezea, itsasoko leizea edo sima esan nahi du. Horixe irudikatzen du eskulturak. Brontzezko hamarnaka pieza dira, guztira hamabost tona pisatzen dutenak. Bertan, itsasoko arroken itxura antzeman daiteke, olatuek janda. Urak ere leku garrantzitsua du piezan, zirkuitu baten bidez betetzen eta husten doaz urez xafra sasigeologikoak, itsasoko mareak imitatuz. Pieza handia da, eta inguratzen duen pasarela batetik begiratu daiteke haren barrura. Itsasargia erabat hustu dute, teilatua kendu diote piezak sartu ahal izateko eta lurrean ere zulo sakona egin dute hondalezea irudikatzeke. Itsasargia zenaren leihoetan, alabastroa, kanpoko argitasunak modu difuminatuan bete dezan espazioa. Bi elementu nagusi ditu Hondalearen inguru-

ruko diskurtsoak. Batetik, naturaren eta artelaren arteko elkarrizketa. Bestetik, erabiltzen ez zen eraikin bat osterera ere jendeari "itzultzea".

FUNTSA ZALANTZAN

Bere horretan badu garrantzia obrak, ez baita nolanahikoa, baina proiektu osoaren funtsa zalantzan jartzen du hainbatetik. Izan ere, ikuspegi batetik begiratu-
ta obraren beraren izaera lausotzen da, beste edozerk, hobeto edo okerrago, bete baitzezakeen Hondaleak betetzen duen lekua, eta proiektua sustatu dutenek ez zuketenean alde handirik nabaritutako agian. BizilagunEkin plataformako Mikel Agirrek azpimarratzen duenez, hasieran Santa Klarako itsasargian artelana kokatzearen helburua herritarrentzako kultur ekipamendu berri bat sortzea esan zuten, baina denbora gutxi behar izan dute Donostiako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Hondalea zirkuitu turistikoan txertatzeko. Dioenez, artelana hiriaren marka nazioartean zabaltzeko erabiltzen ari dira eta eragina izango du hiriaren eta, batez ere, uhartearen masifikazio turistikoan, horrek dituen ondorioekin.

Agirrek argi ikusten du hiriaren marka indartzeko produktu bilakatu nahi dutela uhartea, eta uste du alkatetzak hirian lorratza uzteko baliatu nahi duela. Inguru-

menaren, itsasoaren eta esku-hartzearen arteko elkarbizketa horren atzean, berriz, proiektuaren bultzatzaileen kezka dago bere ustez, hasieratik zekitelako ingurumenari eragingo ziola, eta garrantzitsua zela produktu bukaturik hori ere biltzea: "Berdetasun batekin jantzi nahi izan dute dena".

Hain zuzen ere, Donostiaren desazkunde turistikoaz arduratzen da, batez ere, BizilagunEkin plataforma, baina Santa Klarako itsasargiko obren harira beste hainbat elkarterekin elkarlanean aritu da. Izan ere, turistifikazioa Hondalearen albo-kalte posibleetako bat baizik ez da, eta bestelako ondorioak ekar ditzakeena. Batetik, udal ekonomiaren ikuspegia aipatzen du Agirrek. Hasieran milioi bat euro inguruko proiektua izango zela esan bazen ere, puzten joan da azken urteetan eta gaur egun 6 milioiren bueltan dago.

Horrez gain, itsasargiaren eraikinak gordetzen zuen ondarearen azia ere mahai gainean jarri dute. 1864an eraiki zuten itsasargia, mendeetan inguruan egon zen ermita baten lurretan, eta harrakadetan hartu zituen farozaina eta bere familia. Azkena, Jose Manuel Andoin, bere amarekin bizi izan zen bertan 1944tik 1968ra arte, faroa automatizatu zuten urtea. Ordutik erabili gabe eta hutsik zegoen eraikina, baina baldintza onetan, diotenez, eta itsasargia hustu eta hondatu orduko betiko galdu da ondare arktitektoniko hori.

Hiriko talde ekologistak ere haserre agertu dira prozesuan zehar. Lanaetan egin dituzten bideen zabalpenak eta zuhaitz-mozketak salatu dituzte, eta uhartean gero eta jende gehiago egoteak bertako faunarengan, batez ere txorien, dakarren presioa gogorarazi dute.

Proiektuak izan dezakeen eta Agirrek aipatzen duen beste ondorio bat ere kontuan hartzekoa da. Izan ere, hiri espazioen pribatizazioan urrats bat gehiago izan daiteke, ez baitago itsasargia jendarteari irekia izango ez den ekitaldietarako erabiliko ez dela ziurtatzerik.

KULTURA ETA TURISMOA

BizilagunEkin plataformatik salatzen dutenez, inprobisaziotik asko izan du Hondalea itsasargian kokatzearen proiektuak, eta harago doa plataformako kidea: "Argi dago Eneko Goia berak alkatetzat bultzatutako kontua dela, bere izena bertarako gogoratu dadin".

Bere ustez, hiriaren itsasertzean dauden artisten ibilbide moduko hori merkantilizatzea izan da jokaldia, horretara

rako bertan lekuri ez zuen eta egotea merezi zuen artista bat erabilita, eta hortik abiatuta joan dira proiektua modifikatzen. "Ingurumen-inpaktua salatzen zela ikustean txertatu dute beraien kontakizunean, baina horretan geratu da, kontakizunean".

Udalaren proiektua izan da Hondalea, baina Foru Aldundiak ere ekarpena egin du, eta hor, besteak beste, argi geratu da zein den proiektuaren gaineko ikuspegia, finantzaketaren zati bat Foru Aldundiko Turismo Sailetik datorrela ikusi baita. Agirreren hitzetan: "Argi erakusten du kutsu kulturalaz gain baduela turismoa bultzatzeko eginkizuna proiektuak". Inprobisazio horrek bestelako hutsuneak ere utzi ditu. Egun Cristinaenea Fundazioak kudeatzen du Hondalea, baina hasieran beldur ziren ea espazio publiko hori kontrol publikotik at utziko ote zuten, kudeaketa enpresa pribatu bati eman, Aquariumari, esaterako. Eragileen eskakizunei esker lortu zuten Cristinaenea Fundazioa izendatzea kudeatzaile.

Eragileen presio horrek bultzatu ditu instituzioak bestelako neurri batzuk hartzea ere, baina mugatua da lortutakoa. Izan ere, aurtengo urterako baino ez dute lortu proiektuak uhartean izan ditzakeen kalteak murrizteko neurriak hitzartzea.

Mikel Agirreren aburuz, mugatzekoa baino mugak zabaltzekoa da joera, eta dagoeneko eginga dagoen kaltea murrizteko ez dira nahikoa egun hartu dituzten neurriak. Itsasargia zabaldu zutela hilabete pasatxo pasa den arren honez kero euren buruari jarritako baldintzak gaitzitzen ari direla dio. Horren adibide,

bisitarien taldeak sei lagunekoa izatetik hamar lagunekoa izatera pasatzea. Gauza bera bestelako neurriekin gerta daitekeen beldur dira: "Orain hitzordua hartu behar da, baina nork dio hori aldatuko ez dela?". Gerta daiteke pare bat urte barru bestelako erabakiak hartzea, ez baitago kontrakoa ziurtatuko duen legerik edo akordiorik.

Lehentasunen inguruan galdetuta, baten batek esan baitezake garrantzitsua dela horrelako artelan bat testuinguru horretan kokatzea, Agirrek dio ingurumena dela babestu beharreko lehena. "Dagoeneko babestu ezin dena da leku horrek zuen ondarea". Hala ere, bere ustez, uharteak badu balio paisajistikoaz eta naturalaz haragoko balioa ere: "Herri-tarrak identifikatzen dira, besteak beste, beren uhartearekin eta beren bizitzan zehar egin duten udako aisialdiko erabilera horrekin, eta leku bat merkantilizatzen denean balio sentimental hori galdu egiten da, eta hori ere babestu beharreko puntua da, baina zaila dirudi".

Santa Klara, naturgune eta gune historiko izateaz gain milaka herritarren eguneroko elementua baita. Udan, ekainetik irailera, apur bat gehiago masifikatzen da, baina ohikoan leku lasaia da, familia-ko oroitzapen ugaritan gordetzen dena.

"Hiriko eremu batzuk paisaia erakarri bilakaratzen ari dira, ustez, baina zein da hori egiteko oinarria eta ikuspegia?", Agirreren galdera ez da hutsala, zergatik eta zertarako egin da Hondalea?

Hiriko eremu batzuk enblema bilakatzeko asmoaren atzean hiri eredu jakin bat ezkatzen dela azpimarratzen dute





BizilagunEkin plataformatik. Agintariek orain dela urte batzuk erabaki zutela turismoan oinarritutako hiri ekonomia sortuko zutela Donostiarentzat, edo dagoeneko zegoen horretan sakonduko zutela. Horretarako, baina, hiria salgai bilakatu behar. "Berezko balio organiko bat izan duten lekuak bilakatu behar dira produktu, salgai moduan aurkezteko, eta hori erakusten du, esaterako, Hondaleak", dio Agirrek.

Berezko balioa, jendartearen erabilerarekin batera sortu dena, alboratu egiten da, beste zerbaitetara bideratzen, eta Agirrek nabarmentzen duenez, prozesu horretan bere benekotasuna galtzen du, balizko bisitari batek baloratuko lukeena.

Beste artista batzuk ere batu zaizkio proiektuari. Esaterako, Asier Altuna zinema zuzendariak 2019tik gaurdainoko prozesua filmatu du, eta pelikula bat osatuko du. Berri hori izan zutenean proiektuarekiko kritikoak izan diren eragileak harremanetan jarri ziren filmaren ekoizleekin, beraien ikuspuntua emateko prest zeudela esanez, baina, insistitu arren, ez dute erantzunik jaso. Mikel Agirre: "Horrek erakusten du par-

tzialtasun osoz eta enkargu bati jarraituz egiten den esku-hartze artistiko bati buruz ari garela". Instituzioek Hondalearen inguruan egin duten kanpainarekin lot daiteke ikuspegi hori. Agirrek zaltzan jartzen du publikoaren onespina dirudiena bezain zabala denik, baina dio ezin dela ahaztu zenbat bitarteko erabili dituzten artelana eta biltzen duen proiektua lau haizetara zabaltzeko.

"Eneko Goia alkateak
bultzatutako
kontua da,
bere izena betirako
gogoratu dadin"

KALTEAK MUGA DAITEZKE?

Badaude horretarako aukerak. Lehenik eta behin, uharteko erabilera arautzen

duten dokumentuak berrikusi behar dira. Oraingoz dagoen bakarra uharteari dagokion udal bandoa da. Eta hori ere ez dira errespetatzen ari egun. Izan ere, uhartea bisitatzea lau hilabetera mugatzen da bertan, eta orain sei hilabetera zabaldu dute. Horretaz, gain, Hondalearen edukiera plana berrikusi beharko litzatekeela dio Agirrek, mugatzaileagoa izan dadin. Horren guztiaren gainetik, ordea, uharteko eta Hondalearen erabilera arautzeko Plan Berezi bat beharrezkoa dela dio, jasotzeko zenbat jende sar daitekeen eta zein motako erabilera emango zaion, eta ziurtatzeko epez kanpo ez dela jenderik sartuko eta beti jarduera publikoak izango direla, ekipamendu berriak egingo ez dela...

Uharteari babes supramunicipala emateko prozesua abiatzea ere ezinbestekotzat du. Santa Klara Igeldo eta Urgullekin batera babestutako gunen bilakatzea proposatzen dute, eta Natura 2000 sarean sartzea. Aspaldiko eskaria da Santa Klara biotopo izendatzearena, bertako fauna dela-eta, batez ere. Baina oraindik ez dute lortu halakorik, eta Agirrek, behintzat, ez du instituzioen partetik horretarako asmorik ikusten. ●

JAPONIA, 2001

ESPAINIAR ERESERKIARI PLANTO

Sokari tira, ofizialtasuna bultza

Duela hogeit hamar urte izan zen, Japoniako Akita hirian jokatu zen txapelketa batean: podiumetik alde egin zuen Sakanako sokatira taldeak Espainiako ereserkia entzutean. Une hura eta geroko zalaparta ondo gogoan dute Bea Razkinek eta Nerea eta Belen Lizarragak, aldarria egin zuten zortzi tiralarietako hiruk. Sokalastera jarri nahi izan zieten hainbatek, baina ez dira egindakoaz damutzen; kontrara, "harro" sentitzen dira, keinu "espontaneo" hura mugarria izan baitzen euskal selekzio ofiziala lortzeko bidean.

Akita, Japonia, 2001eko abuztuak 26. Sakanako tiralariak urrezko domina lortu dute kirol ez olinpikoen munduko txapelketan. Podiumera igo dira, ikurrina eskuetan. Alabaina, pozari harridura gailendu zaio Espainiako ereserkia entzun orduko. Elkarri begira hasi dira, eta bitan pentsatu gabe, ikurrina podiumean utzi eta alde egin dute. Hogeit hamar urte dira neska sakandarrek aldarrikapen hura egin zutenetik. Soka luzea ekarri zuen, eta ondorioak makurrak izan ziren hasiera batean: nazioarteko txapelketetatik kanpo gelditu zen euskal sokatira. Tiraldia, ordea, ez zen alferrikakoa izan: keinu ausart hartatik abiatuta, eta borrokaren sokamutur guztiak lotu ostean, sokatirako euskal selekzioak ofizialtasuna lortu zuen 2014an.

"Urrun bezain gertu ikusten dut podiumeko momentu hura. Hogeit hamar urte asko dira, baina oroitzapenak hor daude, bizi-bizirik". Bea Razkinek hitzak dira. Espainiako ereserkiari muzin egin zioten zortzi tiralarietako bat da. Nerea Lizarraga ere han zegoen. Bat dator Razkinekin: "Oso azkar pasa da denbora". Aurrez prestatutako ekintza bat ez, bat-bateko erreakzioa izan zela azaldu

du. "Inprobisatu egin genuen. Azken batean, ez duzu pentsatzen irabazteko nola jokatu behar duzun, horretarako irabazi egin behar baituzu lehenik. Ikurrinak bagenituen, baina ez propio halako egoera baterako. Ordea, momentua iritsita, zerbait egin beharra zegoela sentitu genuen". Bere ahizpa Belenek "errespetu osoz" jokatu zutela gaineratu du: "Inongo liskarrik sortu gabe jaitsi ginen podiumetik, aurkariei bostekoa emanez. Ez genuen inor mintzeko intentziorik".

Euskal taldeek hamarkadak zeramatzaten nazioarteko txapelketa ofizialetan parte hartzen. Espainiaren edo Frantziaren izenpean lehiatzen zuten, baina ez zieten estatutuetatik ereserkiarik jartzen, TWIF Nazioarteko Sokatira Federazioaren ereserkia baizik. "*We are the champions* abestia ipintzen ziguten podiumera igotzean. Gainera, kamisetan *Euskadi* generaman, eta ikurrinak arazorik gabe erakusten genituen", oroitu du Nereak. TWIFek ez zuen eragozpenik jartzen, ez baitzegoen Espainiako sokatira federaziorik -ezta gaur egun ere-. Haatik, egoera brastakoan aldatu zen 2001eko kirol ez olinpikoen txapelketan, Nereak azaldu duenez. "Txapelketa harta-



Sakanako sokatira taldeko kideak Akitan, urrezko domina lepoan.

ko kirolak Olinpiar Jokoetan sartu nahi zituzten, eta horretarako, taldeek estatu baten izenean aritu behar genuen. Politika eta dirua sartu ziren jokoan". Belenen arabera, oharkabean harrapatu zituen aldaketa horrek. "Guk ez genekien zeintzuk ziren baldintza berriak. Ez zigun inork azaldu irabaziz gero Espainiako ereserkia jarriko zigutenik".

Jarri egin zuten, ordea, eta tiralari sakandarrek ez zuten begi onez ikusi. "Sentimendu kontua da. Espainola ez bazara sentitzen, zergatik entzun behar duzu bertako ereserkia?", adierazi du Nereak. Hortaz, podiumetik jaistea deliberatu zuten. Razkinen esanetan, ez zuten "inolaz ere" espero ekintza hark oihartzun handia izango zuenik. Izan zuen ordea, inondik ere. Hasieran ez ziren konturatu, baina, Belenen hitzetan, berehala "usain txarra" hartu zioten egoerari.

"Esan ziguten hegazkin bat jarri behar zigutela etxera itzultzeko. Beldurtu egin ginen. Gainera, mehatxuak izan genituen Japonian bertan".

“

Emakumeak eta nafarrak ginen. Guk egindakoa gaitzetsi zuten askok ez zuten horrelako arazorik izango gizonak eta beste lurralde batekoak bagina"

Bea Razkin

Biharamunean ere tira egitekoak ziren, 520 kiloko proban. Berdin jokatzeko asmoa ote zuten galdetu zieten. "Guk baietz erantzun genuen, kontraesankorra izango litzateke bestela", diote. Bada, esan zieten, atzera ere podiumetik ospa eginez gero mutilek ez zutela txapelketan parte hartzerik izango. Hala, korik gerta ez zedin, ez tiratzea erabaki zuen zortzikote sakandarrak. "Guk albo batera egin ezean, egindako lan guztia eta bidaia alferrik izango zuten haiek", arrazoitu du Razkinak. Prest zeuden lehiatzeko, eta aukera eman nahi izan genien". Antolatzaileak ez ziren fio, eta badaezpada ere agiri bat sinarazi zieten mutilen taldeei, Espainiako ereserkia entzutean ez zutela hanka egingo ziurtatzeko. Azkenean, baina, txapelketatik bota zituzten Euskal Herriko talde guztiak. Kalapita hasi besterik ez zen egin.



Sakanako tiralariak, Herbehereetako Munduko Txapelketan, 2000. urtean. Hura ere irabazi egin zuten.

KRIKA GOGORRENAK, ETXEAN

Erabat tenkatu zen TWIFen eta EHFK Euskadiko Herri Kirol Federazioaren arteko soka. Euskal tiralariak espainiar edo frantziar bezala jardutea eta zegokien estatuko sinbolo guztiak onartzea nahi zuen nazioarteko federazioak. Areago, Espainiako federaziorik ez zegoenez, Euskadiko federazioak Espainiako Estatuko edozein tokitako kirolariak onartu zitzaizkien eskatu zuen hasieran. Presioa areagotuz joan zen, harik eta, ezinbestean, soka eten zen arte: Europako eta munduko txapelketetatik kanpo gelditu ziren Euskal Herriko taldeak.

Egoera hartan, pagaburu izan ziren tiralari sakandarrak, egurra jaso baitzuten handik eta hemendik. Ez zituzten ezustean hartu Euskal Herriatik kanpoko kritikek. Gogorrenak, ordea, etxean bertan jaso zituzten, eta hori “zentzugabekeria” iruditu zitzaien. Hala azaldu du Nereak: “Ulergarria zen Akitan lehiatu gabe gelditu zirenen hase-

rra; ez, ordea, orokorrean sokatiraren barruan sortu zen gure kontrako giroa. Federazioan bilerak izan ziren, eta jendea ez zegoen batere pozik gurekin”. Bilkura horietako batean entzundakoa ekarri du gogora Belenek. “Ereserki frankista jarrita ere, lehiatzeko prest zegoela bota zuen batek. Batzuek kirol irizpideak ororen gainetik jarri zituzten, eta errespetagarria zen. Baina askok ez zuten gure erabakia errespetatu”. Gaineratu du beti “seinalatuta” egon direla, eta “mespretxuzko begiradak” jasan behar izan dituztela.

Hautsak berdin harrotuko ote ziren aldarrikapena beste talde batek egin izan balu? Ezezkoan dago Razkin. “Aintzat hartu behar da emakumeak eta nafarrak ginela. Guk egindakoa gaitzetsi zuten askok ez zuten horrelako arazorik izango gizonak eta beste lurralde batekoak izan bagina”. Sokatiraren alorretik kanpo aldiz “babes handia” jaso zuten. “Euskal Herriko hedabide askotan goretsi zuten guk egindakoa, eta

gizartea ere, oro har, gure alde agertu zen. Urte askoren ondoren, oraindik eskerrak ematen dizkigute”.

PIZGARRI IZAN ZEN KEINUA

Esker ona Japoniatik itzuli orduko sentitu zuten, harrera jendetsua egin baitzieten Loiuko aireportuan, ESAIT Euskal Selekzioaren Aldeko Iritzi Taldeak antolatuta. “Lotsatu egin ginen”, aitortu du Belenek. “Eskapo egin nahi genuen”, gaineratu du Razkinek, “oso une hunkigarria” izan zela onartzearekin batera. “Ez genuen inondik inora espero aireportuan bertan halako harrera egingo zigutenik. Pentsa zitekeen Arbizun egingo zigutela omenaldiren bat, baina nazio-mailan... Ezusteko handia izan zen. Eta orduan ohartu ginen benetan kontuak sortu zuen harrabotsaz”.

So-Ka “balioa sortzea” da japonieraz. Horixe egin zuten, hain justu, tiralari sakandarrek, ofizialtasunaren sokatik indarrez tira eginda. Hauspotu egin zuten euskal selekzio ofizialaren aldeko alda-

rrikapena, gauzak nahiko bare zeuden garai batean. Nerearen hitzetan, “bertan goxo” zegoen sokatiraren bueltako jendea. “Azken batean, txapelketa haren aurretik ez zizkiguten Espainiako sinboloak inposatzen. Aldaketa bat-batekoa izan zen, eta gure erantzun espontaneoak dena abiatu zuen”. Horren harira, anekdota bat gogoratu du. “Beroketak egiten hasi, eta Espainiako bandera ikusi genuen. ‘Zer egiten du hor bandera horrek?’, esan genuen gure artean. Kentzeko esan genion hango langile bati, eta jaramon egin zigun. Egia esan, japoniarrak oso adeitsuak izan ziren gurekin”. Bitxikeria bezala, *Sakana* hitzak japonieraz *arraina* esan nahi duela azaldu zieten.

Sakandarren ekinbideak ofizialtasuna uxatu zuen hasiera batean, arrain iheskor bat balitz bezala. Alabaina, luzera begira, federazioa, klubak eta tiralariak selekzio nazionalaren aldarrikapenean engaiatzeko amua izan zen. Eta konpromiso horrek aurrerapausoak ekarri zituen berarekin. Lehenbizi, TWI-Fen txapelketetan klubetan mailan lehiatzeko aukera berreskuratu zuten; gero, nazio mailan ere hasi ziren lehiatzen, federazio gisa. Eta 2014an, TWIFek izaera ofiziala aitortu zion euskal selekzioari. Basque Country izenpean lehiatzen da geroztik. Harro mintzo da Belen. “Guk zabaldu genuen bidea, eta orain aukera dago Euskal Herriaren izenean lehiatzeko. Atea norbaitek zabaldu behar zuen, eta aurrez pentsatuta ez genuen arren, guk eman genuen urratsa”.

ARO BATEN BUKAERA

Zortzikote sakandarra 1995ean hasi zen sokatiran. “Hasieran soka zer zen ere ez genekien ia”, nabarmendu du Razkinek. Gustuko kirol baten bila zebiltzan eta izena eman zuten Sakanako Mankomunitateak antolatutako ikastaro batean. Ondo ikasi zituzten ikasi beharrekoak, punta-puntako taldea bihurtu baitziren. “Gurekin harrituta zegoen jendea. Talde berarekin aritzen ginen 480 kiloan eta 520an. Epailerek esaten ziguten ea oker genbiltzan. Eta guk ezetz, geundenak ginela. Eta halerre irabazi egiten genuen”, gogoratu du Belenek. Bere ahizpa aurkariak egiten zieten azterketa zorrotzaz mintzatu da. “Taiwandarrekin, esaterako, ematen genituen pauso guztiak behatzen zituzten. Zortzi bat kamera izaten genituen inguruan. Oro har, asko ikasi dute hemengo taldeengandik, eta orain haiek dira tiralaririk onenetakoak”.



Bea Razkin, Nerea Lizarraga eta Belen Lizarraga, ikurriña eskuetan.

Sakandarrek 2000. urteko Munduko Txapelketa irabazi zuten Herbehereetan, eta Japoniako garaipen sonatua iritsi zen hurrena. Ibilbideari ginga jarrita, talde hura desegitea deliberatu zuten. Nereak azpimarratu duenez, barruak eskatutako erabakia izan zen, eta ez podiumeko aldarrikapenak sortutako zalapartaren ondorioa. “Batzuk ikasten zebiltzan, beste batzuk lanean, eta dedikazio handia

behar zen. Gainera, anbizioa galdu genuen den-dena irabazi eta gero”. Atzera begiratuta, sokatirak “asko” eman ziela uste du Belenek. “Jende ugari eta toki berriak ezagutu genituen. Gainera, sokatirak emakumea eta indarra lotzen ditu, eta genero rolak irauli”. Buruhausteak ere ekarri zizkien, baina bat datoz hirurak: “Akitan egin genuena ez genuke inondik inora aldatuko”. ●

“ ”

“Ezer egiten ez denean, euskara askoren arteko bat da hizkuntza aniztasunaren erdian”

Beñat Garaio

Zenbakiak gogoan harturik etorri da Beñat Garaio (Gasteiz, 1990) elkarrizketara. Sei ikasturte egin ditu Gasteizen *Hitz Adina Mintzo* zikloak; 43 hitzaldi, 42 hizkuntza, 61 hizlari izan dira orotara. Eta, bestalde, entzuleak, noiz gehixeago, noiz gutxixeago, ziklo bereziari arreta eskaini diotenak. Bidea eginik, datorren urtean ez da izango munduko hizkuntza gutxituak helburu zituen zikloa.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Nola ekin zenioten *Hitz Adina Mintzo* zikloari?

2014-15eko kontuak dira. Sasoi hartan Londresen ari nintzen Ekialdeko eta Afrikako Ikasketen Eskola SOAS unibertsitatean, hizkuntza biziberritzeari buruzko masterra egiten. Oihaneder euskararen etxekoak nirekin harremanetan jarri ziren eta hizkuntza gutxituei buruzko zerbait egitea proposatu zidaten. Nik *Hitz Adina Mintzo* formatuko zikloa proposatu nien. Ondo iruditu zitzairen, eta Londresen bertan nengoela hasi nintzen lehen ikasturtea egituratzen.

Zer dela-eta hartu zenituen hizkuntza gutxituak zikloaren gaitzat?

Ordurako, hizkuntza gutxituak ezagutze-
ra emateko irratsaio baten asmoa ibilia
nuen buruan. “Zeintzuk dira hizkuntza
gutxitu bati buruzko gauzarik garran-

tzizkoenak? Zer jakin nahiko luke har-
taz ezer ez dakien batek?”. Galderarekin
batera, laster etorri ziren erantzunak:
“Ondo legoke dena delako hizkuntza gu-
txituari buruzko informazio orokorra
jasotzea, hizkuntza komunitatea nondik
nora garatu den azaltzea, haren lege es-
tatusaren berri ematea, ezaugarri lin-
guistiko behinenak...”. Horrekin batera,
balizko entzuleen jakin-mina asetzea
zetorren eta, horretarako, ezinbestekoa
zen elkarrizketari tartea uztea. Azkenik,
hizkuntza gutxituaren gaineko ikastaro
txiki-txiki bat eskaintzea pentsatu nuen,
zenbait hitz edota esaldi oinarritzkoenak
ikasteko. Horixe izan zen nire planteamendua.

Sei urte egin ditu zikloak.

Sei ikasturte, 43 hitzaldi, 42 hizkuntza,
61 hizlari denera. Horiexek dituzu zen-
bakiak. Ikasturtearen hasieran beti egin

izan dugu soziolingustikari buruzko aur-
kezpen orokorra eta urtean zeharreko
hitzaldietan, berriz, hizkuntza gutxitu
bana aztertu dugu. Esan behar dut ha-
sieran bakarrik Oihanederren ekimena
izan zela. Gero, zikloa unibertsitate ikas-
leentzat ere interesgarria izan ziteke-
la pentsatu genuen, eta EHUREkin hitz
egin eta hitzaldietara etortzea aukera
askeko kredituen barruan sartu zuten.
Harrezkero, urteko lehen hitzaldi edo
aurkezpena EHUREn Gasteizko Letren
Fakultatean egin izan da. Deia egiteko
modu bat zen, hitzaldi haren ondotik
Oihanederrera joateko deia, alegia, hi-
lean behingo hitzordura: hileko hiruga-
rren asteazkenean, arratsaldeko zazpie-
tan beti. Hitzordu finkoa zen.

Horrek zikloa indartzen lagundu zizuen?

Ondo etorri zitzaigun, ze lehenengo

ikasturtea oso irregularra izan baitzen entzuleei dagokienez. Lehenengo hitzaldian 70 lagun izan zirela gogoratzen naiz. Sechu Sende eta Andoni Barreña izan ziren hizlari. “Beti horrela bada, arrakasta itzela!”, pentsatu genuen. Baina bigarren hitzaldira zazpi pertsona etorri ziren. Entzule kopuruari dagokionez, gorabehera handiak izan genituen. Oihanederrek zenbait baliabide jartzen zituen zikloa gauza zedin, eta zenbaitean entzule kopuruak ez zuen muga jakin bat gainditzen, eta hori, niri pertsonalki,

gogorra egiten zitzaidan. Ondoko urteetan, EHUrekin ez ezik, Garabiderekin, Munduko Hizkuntzen Unesco Katedrarekin eta UEUrekin ere harremana lantzen genuen. Baita hedabideekin ere. Eta, harrezkero, erregularragoak izan ziren kopuruak, nahiz eta apalagoak izan. Joan den azken ikasturtean, berriz, Ainhoa Moronekin batera hasi nintzen seigarren ekitaldi hau egituratzen, eta haren energia eta ikuspegiari esker, egitasmoa sendotu genuen. Nik esatera, azken urte honetan giroa askoz hobea izan da, en-

tzule kopurua handitu da, eta kopuru hori, gainera, erregularra izan da.

Eta orain, gailurrera iritsi zaretenean, bukatutzat eman duzue zikloa.

Nekea. Bestelako zenbait proiektutan ere ari naiz lanean eta garrantzitsua zitzaidan zikloa zapore onarekin bukatzea. Oihanederrekoei esan nien ez nuela jarraitzeko modurik eta haiek, berriz, nirekin hasitako proiektua elkarrekin amaitu nahi izan zuten, eta aho gustu onarekin. Oso gauza xume bezala hasi ginen, luzerako aurreikuspenik gabe. Gogoan dut lehen ikasturtea egituratu eta gero ere, kezka nuela, hizkuntza gutxituetako euskara hiztunak aurkituko ote genituen, hitzaldia egin zezaten. Bai erraz asko aurkitu ere! Zikloa bukatutzat eman orduko, beste ikasturte oso bat egiteko bezainbat hitzaldi etorri zaizkit burura. Aukera handia baita.

“ ”

Hizkuntza aniztasuna badago, baina ikusgarritasunik ez. Zikloak Euskal Herrian zer dugun ikustera behartu gaitu

Euskara hiztunak izan dituzue hizlari, nor bere hizkuntza gutxituari buruz mintzo. Gure artean ere bada dibertsitaterik franko.

Aniztasuna bai, baina ikusgarritasunik ez du. Zikloak Euskal Herrian zer dugun ikustera behartu gaitu. Atzerrira begiratu ordez, bertan begiratu behar izan dugu, hiztun bila. Oso lagungarri izan da 101L egitasmoa, Ahotsak.eus-eko proiektua, alegia. Euskal Herriko hizkuntza aniztasuna dokumentatzea helburu du egitasmo horrek. Arduradunekin harremanetan jarri eta bateko eta besteko hiztunen zerrenda lortu genuen, publikoa baita. Hortik abiatu eta hainbat hizlari inguratu genituen. Euskal herri-tarrak ez zirenean, euskararen erromantizismoa edota erakargarritasuna medio, euskara ikasi duten atzerri-tarrak gertatu zaizkigu. Britainiatik, adibidez.



MUGARRIAK

Beñat Garaio Soziolinguistika eta Hizkuntzen Biziberritzea ikasketak egin da eta doktorego tesia burutzen ari da oraintxe. Etorkin jatorriko ikasle asko dituzten Gasteizko bi eskola publiko aukeratu, D eredukoak biak, eta haietan hizkuntza jarrerak eta ikasleen ahozko gaitasuna zertan diren aztertzen ari da. Bestalde, Soziolinguistika Klusterreko langile da, Euskarabenturako antolatzaileetako eta hizkuntza gutxituetako gazteen e-GA egitasmoaren arduradun. Eta, jakina, *Hitz Adina Mintzo* proiektuaren buru eta bihotz.

“Nire iritzi xumean, *Hitz Adina Mintzo* zikloa bakarra da munduan. Hitzaldi guztiek utzi dute azterna. Oso ezberdinak izan dira giroz, edukiz eta hizlariz. Sechu Sendek eta Andoni Barreñak egin dako lehen hura gogoratzeko modukoa da, abiapuntua izan zelako eta jendetza bildu zuelako. Lehen urte hartan bertan, Frank Dolosorren saioa ere gogoangarria izan zen... Saio interesgarriak asko baino gehiago izan dira. Ikasturte honetan, esaterako, Aitor Esteban gure ziklora etortzeko konbentzitu izana pozgarria izan zen. Jorge Naurren ukitu pertsonala ere hortxe da. Halaber, nasa yuweari, *Anhitzak*-i edota groenlandierari buruzkoetan ere maitasun handiz jardun zuten hizlariak. Hori bat zetorren gure helburuekin, gure xedea ez baitzen entzuleak dena delako hizkuntza gutxituari buruzko datuz betetzea. Ez. Irudi orokorra zen helburu”.

Metig Jakez-Vargas etorri zitzaigun, bretoieraren aldeko aktibista. Euskal Herrian oso gutxi egona da, baina badaki euskaraz. Hura etorraraztea derrigorra iruditu zitzaigun.

Hizkuntza aniztasunaz ari garela, zertan da dibertsitate hori Gasteizen?

Hori Anhitzak proiektuak erakutsi du ondoen [Ikusi iragan apirilaren 4ko ARGIA]. Anhitzakek bi ekitaldi izan ditu. Bata 2016an, formatu handikoa, non aniztasuna espazio fisiko handi batean irudikatu nahi izan baitzuen. Bigarren ekitaldia egitekoa zenean, pandemia lehertu zen. Orduan, zerbait txikiagoa egitea hartu zuten gogoan, hizkuntzaka batuz hitzunak; hilabete batean, arabiera hitzunak, bestean amazigh hitzunak, hurrena... Hementxe da aniztasuna, eta Javier Maroto hiriko alkate zen garaian [2011-15] hasieran modu txarrean azaleratu bazen ere, geroztik, eta haren jarraitzaile erantzunez, positiboki ekarri nahi izan da plazara aniztasuna. Orduetik hona, aniztasuna areagotu besterik ez da egin. Besterik da zer egiten den aniztasun horrekin, zer baliabide eta lehentasun dauden, zer gertatzen den hezkuntzan eta hezkuntza segregazioarekin.

Hizkuntza dibertsitate hori aintzat hartzen ote da hezkuntzan? Zertan da hizkuntzen tratamendua ikastetxe segregatueta?

Hizkuntza dibertsitatea aintzat hartzen da, bai, baina, baldin eta ikastetxeak, oro har, eta irakasleak sentsibiltate berezia badauka, eta baliabide eta ahalmenik badauka. Badakigu, datuak eta lekukoak baititugu, zenbait irakasle gogotik saiatzen direla gela barruko hizkuntza aniztasuna ikasgelaren erdigunean jartzen. Balio erantsi garrantzitsua izan dadin saiatzen dira. Eskola segregatuak dagokienez, dokumentatuta dago, matrikulazio datuek esaten baitigute, etorkin jato-

rriko ikasleak ikastetxe publikoetan pilatzen direla, eta horixe da hitza, pilatu, ez baitago banaketa orekaturik. Salbuespenak salbuespen, aniztasun handiena eskola publikoan dago, eta urrutira joan gabe, Gasteizko zenbait eskolatan ehuneko ia osoa etorkin jatorrikoa da. Kontrara, beste zenbait ikastetxetan, ikasleen ia guztiak gasteiztar, euskal herritar edo espainiar jatorrikoak dira.

“ ”

Zenbait irakasle gogotik saiatzen dira gela barruko hizkuntza aniztasuna ikasgelaren erdigunean jartzen

Eta nola bizi da euskara Gasteizko hizkuntza dibertsitate handi horretan?

Ezer egiten ez denean, euskara askoren arteko bat da aniztasunaren erdian. Diferentzia bakarra da ofiziala dela eta irakasten dela. Ikasgelaz kanpora, aldiz, zenbait ikaslerentzat euskara ez da existitzen. Plangintza zehatz bat eginez gero, erabakiz gero ikasleen zubi eta komunikazio hizkuntza euskara izango dela, gurasoak jakinaren gainean jarritz, hizkuntzak beren nortasunaren atal izatea helburu hartzen bada, besterik litzateke euskarak aniztasun horren barruan lukeen espazioa. Horretaz hausnartu beharra dago, euskararen biziberritzea dagokionez, hori erronka garrantzitsua izango bailitzateke, euskara lehentasunezkoa izatea aniztasun handiko tokietan, hau da, Euskal Herriko herrigune ia guztietan. ●

BABESLETTZA:



Ipar Euskal Herriko Osasungoa Euskalduntzeko Elkartea sortu da

Urteak daramatza lanean Hego Euskal Herriko Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak eta Ipar Euskal Herrikoa enbor horretatik jaio da. Badakite Frantziak ez diela oparirik egingo, baina osasungintzaren euskalduntzean urrats txikiak eman daitezkeela ziur dira.

 ONINTZA IRURETA AZKUNE

Elkartea sortzeko biltzarra ekainaren 26an egin zuten Makean. Osasungintzako dozena bat profesional elkartu ziren. Jende gutxiago espero zuten eta pozik daude lehen deialdia egin duten bultzatzaileak. Horietako bat da Xan Berterretxe medikua: "Biziki ontsa joan zen biltzarra eta biltzarrean izan ez ziren beste dozena bat osasun langilek igorri digu mezua erranez interesatuak direla". Parte-hartzaile kopuruagatik eta piztutako interesagatik gustura egoteaz gain, biltzarrak balio izan die konturatzeko profesional bakoitza bere txokoan ari dela lanean, hau da, osasungintza euskalduntzen urrats praktikoak ematen ari direla hainbat profesional eta gaiaren inguruko gogoeta hainbat ere eginak direla. Elkar-tearen bidez, norbere txokotik atera eta emandako pausoak elkarbanatzea litzateke aurrera begirako asmoa.

HIRU HELBURU

Elkartea sortu berria da eta badakite urratsak poliki-poliki emango dituztela. Hala ere, hiru helburu finkatu dituzte. Lehenik, ospitaleetan euskararen erabilera bultzatu nahi dute eta batez ere Baionako ospitalera begira daude. Ospitale horretan urtetan egon da euskararen erabilera sustatzen zuen talde bat, baina azkenaldian geldirik zegoen. Sorrera biltzarrean izan dira talde horretan ibilitako hainbat kide eta adierazi dute taldea berriz lanean hasiko dela.



Ekainaren 26an elkartea sortu zuteneko lehen biltzarrean, Makean.

Bigarrenik, idatzizko materiala euskarara ekartzea nahi dute, direla pazienteen diagnostikoak, jendeari ematen zaizkion oharra, osasun guneetan pazienteen eskura egoten diren eskuorriak... Alor horretan konturatu dira nork bere txokotik halako lanak eginak dituela, eta gehiago eta hobeto egitea litzateke helburua.

Hirugarrenik, Euskararen Erakunde Publikoarekin harremanetan jarri nahi dute. Erakunde horren babesean, ikerketa sakon eta luzea egin nahiko lukete. Hiru ardatz izango lituzkeen diagnostikoa osatu nahi dute. Lehenik, neurtuko lukete zenbat langile euskaldun ari diren lanean osasun zerbitzuetan. Bigarrenik, galdetuko lukete profesionalok euskara erabiltzen duten lanean –lehen hitza euskaraz egiten duten eta abar–, eta hirugarrenik, galdetuko lukete ea zenbat pazientek eta zenbat aldiz hizkuntzagatik diskriminazio egoerak bizi izan dituzten.

LEGE BABESIK GABE ARITUKO DIRA

Euskarak ez du ofizialtasunik Ipar Euskal Herrian eta elkar-tearen lanak ez du inolako babes juridikorik izango. Badakite hori osasungintzan euskararen erabilera sustatu nahi duten profesionalak. Hala dio Berterretxek: "Oparirik ez dugu ukanen, babes juridiko izpirik ez dugu izango, eta hala ere, gauzak egin daitezke. Orain Ipar Euskal Herrian badi-

ra profesional euskaldunak eta urrats tipiak eman ditzakegu. Dena den, Frantziaren inposaketak ez digu ahalbidetuko osasungoa euskalduntzen".

ELKARTERA BATZEKO GONBITA

Elkarte berriak harreman estua du Hego Euskal Herriko Osasungoa Euskalduntzeko Erakundearekin eta ikuspegi nazionalari eutsi nahi izan diote. Hala ere, elkartea autonomoa da Ipar Euskal Herriko Osasungoa Euskalduntzeko Elkartea. Hegoaldekoak egindako bidea Iparraldera egokitzeak beharra ikusten dute eta horretarako elkartea berria sortzea hobetsi dute. Dirulaguntzak lortu nahi izango balituzte, berriz, derrigor Ipar Euskal Herrian finkatutako elkartea beharko luke izan.

Bidea hasi besterik ez du egin elkar-teak. Osasun arloarekin erlazioa duen edozein profesionalentzat irekia da taldea eta harremanetan jartzeko ondoko posta helbidera idazteko eskatu dute: oeeiparralde@ni.eus. ●

NICOLA SCHERER

“Osasungintza eta zaintza lanak zeharo ahaztuta daude Next Generation funtsetan”

Nicola Scherer (Munich, 1984) Kataluniako Observatori del Deute en la Globalització (Zorraren Behatokia Globalizazioan) erakundeko ikertzailea eta Open Generation EU taldeko kidea da eta Kapitalari Planto! plataformak ekainean aurkeztu zuen *Europako berreskuratze-funtsak: itxurazko aldaketa berde eta digitala* txostenean parte hartu du. Europar Batasuneko Next Generation EU funtsek (ikus ARGIAren 2.719 zk.) Hego Euskal Herrian zertarako erabiliko diren eta zer ondorio edukiko duten aztertzea da txostenaren helburua, eta horixe izan dugu hizpide solasalditxo honetan.

 UNAI BREA  HODEI TORRES

Bai. Labur esanda, zer dira Next Generation EU funtsak?

Neurri-sorta bat da, diru publikoko injekzio bat, mailegu eta dirulaguntzen bidezkoa, datozen hiru urteetan esleituko dena. Zenbatekoa 750.000 milioi eurokoa da, EBko estatu kideen artean banatzeko.

Eta helburua?

Kontakizun ofizialaren arabera, pizgarri bat da, COVID-19ren krisiaren ostean ekonomia suspertzeko. Baina era berean, eta hori da funtsezko arrazoia, Europako ehun ekonomikoa eraldatzea da asmoa (hala zen COVID-19ren aurretik ere). Eta hain zuzen, Europako Batzordeak esan du eraldatze hori lortzeko, funtsen %37 helburu klimatikoekin zerikusia duten inbertsio eta erreformetara bideratuko dituela, eta %20, berriz, digitalizaziora. Eta inbertsio guztiek printzipio bat bete behar dutela: ingurumenari kalterik ez egitea. Hori nabarmendu beharra dago. Izan ere, europar erakundeek diru in-

jekzio batek baldintzatzaile “berdeak” dituen lehen aldia baita. Berrikuntza da. Kontakizun ofizialaren arabera betiere, berriz diot.

Zer epe egongo da diru hori itzultzeko?

Kasuaren arabera izango da hori. Espainiako Estatuari dagokionez, ekainaren 16an Europako Batzordeko presidentea, Ursula von der Leyen, Madril en egon zen, eta onespena eman zion España Puede Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari. Plan hori nahi-taezkoa da mekanismo garrantzitsuena eskatu ahal izateko, alegia, suspertze eta erresilientzia mekanismoa; herrialdeek, planak aurkeztuta, dirua eska dezakete. Espainiako Estatuaren kasuan, 140.000 milioi euro dira. Horren erdia dirulaguntza bidez emango da, eta espainiar gobernuak, ekainaren 16an, esan zuen momentuz horixe besterik ez dutela eskatuko. Hortaz, ez dago itzuli beharrik, printzipioz.

Baina...

Epe luzeko arriskuez hitz egin beharra dago. España Puede plana irakurtzen baduzu, ohartuko zara haren edukia, batez ere, ekonomiaren funtsezko zenbait sektore (hidrogenoa, automobilgintza, turismoa...) modernizatzeari eta digitalizatzeari buruzkoa dela. Baina badira bestelako alderdi batzuk ere: lan erreformak, pentsio sistemaren erreformak, fiskalitatea. Europako Batzordeak baldintza horiek betetzea eskatzen du, dirua emateko. Eta hori oso arriskutsua da. Bestalde, dirulaguntzak ordainik gabekoak omen dira, baina, gure iritziz, ez da hala.

Zergatik?

Next Generation EUrako dirua finantza merkatuekiko zorpetuz lortuko delako. Mekanismo berri bat dago, eurobonuak –hau da, zorra–, zeinaren titularra EB den; ekainaren 14an jaulki ziren lehen-bizikoak. Horien bidez dirua biltzen da finantza merkatuetan, estatu kideei or-



dainketa egin ahal izateko. Eta hori garrantzitsua da. Izan ere, hamar urteko epean itzuli behar dira bonu horiek.

Nola?

Estatu kideetan dirua biltuz. Eta nola biltzen da dirua, gastu publikoa eten-gabe zorpetzen ari den honetan? Bada, seguruena, austeritate politikak ezarri, gastu publikoa murriztuz, eta abar.

Mezu ofizialari muzin egin eta honako hau beste erreskate bat dela esan duzue, izan ere.

Bai, halaxe da.

Eta opilaren zatirik handiena transnacionalentzat, enpresa handientzat... izango dela.

Bai, berriz ere ikusten ari gara diru publikoa sartuko dela ekonomiaren alde pribatuan. Funtsen dirua jasotzeko aurkeztutako proiektuei erreparatuz gero, ikus daiteke proiektu horien sustatzaileren artean ez dagoela enpresa ertain-txikirik, ez autonomorik, ez ekonomia sozial eta solidarioko eragilerik... Ekonomiaren eragile txikiak ez dira proposamenetan agertzen, eta ez dute horietan parte hartu. Enpresa handiak izango dira onuradunak, haiek baitira funtsen egikaritze-ereduan ESEPE (Ekonomia Susperitu eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoak) esaten zaien gidariak. Lankidetzaren publiko-pribatuko proiektuak dira, eta enpresa handiak dira buruan.

Enpresa txiki eta ertainek, edo are entitate txikiagoek, badute horietan sartzeko aukerarik?

Ez. Proposamenak lantzeko orain arte egin den prozesuan, informazioa eskuratzetik ere ez dute izan. Eta aldiz, leihatila informalak egon dira, zeinetan enpresa handiek eta patronalek aukera izan duten ministerioekin zuzenean jarduteko eta beren proiektuak aurkezteko.

Hala ere, Europako berreskuratzeko funtsak dokumentuan diozue proiektuak oraindik ez daudela argi, ez daudela zehaztuta...

Arloak daude zehaztuta, 30 guztira. Eta arlo bakoitzaren barruan, dirua ESEPE proiektuen bidez banatzen da. Seguruenik, ESEPE horiek zehaztuta daude dagoeneko, baina ministerioetako tiraderetan. Zeren, azken hilabeteetan, ministerioen zeregina ideiak biltzea izan da, ESEPE estrategikoak zeintzuk izan

daitezkeen ikusteko. Haien esanetan "traktoreak" diren ESEPEak. Argudiatzen dute enpresa handiek gauzatuko dituztela proiektuak, eta, hala, enpresa txiki eta ertainak erakarriko dituztela. Haatik, España Puede planean atal bakarrak dihardu, berariaz, enpresa txiki eta ertainez; zehazki, haiek digitalizatzeko diruaz. Ez ekoizpen eredu aldatzeko, edo antzeko helbururen baterako. Ekonomia soziala eta ekonomia solidarioa, berriz, aipatu ere ez.

“Uste dugu
NEXT Generation
EU funtsen dirua ez
dela pertsonengana
iritsiko”

Nola eragingo dio horrek guztiak gure bizitzetara?

Kalterako, nire ustez. Batetik, planteatutako proiektuak, neurri handi batean, proiektu erraldoiak dira, azpiegiturazarrak, enpresa handiek gauzatuko dituztenak, denbora laburrean diru asko gastatzeko ahalmena dute eta. Uste dut mahai gainean jarritako diru hori ez dela pertsonengana iritsiko. Bestetik, pandemiak emandako irakaspena dugu: ikasi dugu ondo funtzionatzeko duen osasun sistema behar dugula eta zaintzako lana oso garrantzitsua dela (azken urtean emakumeek berenganatu dute haren zati handiena)... eta hori guztiori zeharo ahaztuta dago plangintzan. Ez da aipatzen. Adibide bat: [España Puede-n] badago osasunari buruzko arlo bat; argudiatzen da planak baduela alde soziala, zaintzaren arloa hobetuko dela... Baina xehe aztertuz gero, ikusten da osasungintzako inbertsioen %75 ekipamendua berritzera bideratuko dela. Eta pandemiaren ikusi dugunez, arazoa ez da hori. Arazoa langile falta izan da, ohe falta. Azken batean, lehen mailako osasungintza, prebentzioa. Eta horrelakorik ez da ageri planean. Ez zaie erantzuten benetako beharrezane; horretarako, ekonomia eraldatu beharko litzateke, herritarrak izan daitezen onuradunak.

Alternatibak ipini dituzue mahai

gainean.

Bai. Uste dugu bestelako finantzabideak bilatu beharra dagoela, zorpetu gabe. Hau da, inpaktu bat eragingo duten baldintzarik ezarri gabe. Ekonomiaren eraldaketa egiteko dirua fiskalitate bidezkoago baten bitartez bil liteke, proposamen asko dago horri buruz: sozietateen gaineko zergak, fortuna handien gaineko zergak, ingurumen fiskalitatea... Gure kideetako batzuek konparazioa egin dute, eta ondorioztatu dute Hego Euskal Herrian, fiskalitate bidezko bategin, Next Generationen bidez jasotzea espero dena baino diru gehiago bil litekeela urtebetean. Bestalde, ados gaude ekoizpenaren eta ekonomiaren ehuna aldatu beharra dagoela, baina baita gizarte eredu ere, jasangarriagoa izan dadin.


Greenwashing delakoa egitea leporatu diezue funtsei, ingurumenaz den bezainbatean gehiegizko tekno-optimismoan oinarritzen delakoan.

Hala da, bai. Alde batetik, ikusten dugu energia enpresak, enpresa kutsatzailak, beren mezua moldatzen ari direla, eraldatze ekologikoaren eragile nagusi gisa agertzeko. Ez dute dirua eskatzen proiektuak garatzeko bakarrik, baita enpresak eraldatzeko ere. Eta bitartean, mega-proiektuak proposatzen dituzte, egingo diren lurraldeetan inpaktu sozial eta ekologikoa edukiko dutenak. Euskal Herrian, adibidez, hidrogenoaren korridorea. Klimaren ikuspuntutik jasangarria omen den guztia ez da berdea.

Greenwashing ez ezik, España Puede planak lilawashing ere egiten duela salatu duzue prentsako artikuluan batean.

Askok hitz egiten dute genero kontuek, berdintasunaz... Eta 2.500 orrialdeko azken bertsioa irakurri genuenean, ikusi genuen, eta hau azpimarratu beharra dago, oso proposamen espezifiko dagoela maskulinizatutako zenbait sektore (energia, autogintza...) modernizatzeko eta digitalizatzeko. Bestalde, zaintza eta osasunaren sektoreetarako, sektore feminizatuagoetarako, ez dago planik modernizaziorako eta eredu erresilientekoak sortzeko. España Puede planean, osagai bakoitza ministerio bateko sail batek idatzi du, eta batzuek generoa aipatu ere ez dute egiten. Hau da, ez dago genero berdintasunerako zeharkako proposamenik, gure iritziz. ●

AEBek irabazi, McDonaldsek galdu



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Los Angeles, 1984ko uda. XXIII. Olinpiar Jokoak AEBetako hirian egin ziren eta McDonald's frankiziak marketin kanpaina berezia prestatu zuen horiei lotuta: "Urratu eta irabazi" moduko txartelen bidez, bezeroek Big Mac bat jasoko zuten doan AEBek urrezko domina irabaziz gero, patatak, zilarrezko domina lortuz gero, eta freskagarria, domina brontzezkoa bazen. Txartelaren zati ezkutuan diziplina olimpiko jakin baten izena zegoen, eta etxeok kirol horretan domina lortzeak ematen zuen metalari zegokion saria jasotzeko aukera.

Beraz, kanpainaren arrakasta, kostua eta errentagarritasuna AEBek irabazi eta zuten domina kopuruaren araberakoa zen. Zenbat domina izango ziren eta, ondorioz, doan zenbat produktu banatu behar zituzten zuten aurreikustea funtsezkoa zen. Horretarako 8 urte atzera egin behar izan zuten, 1976ko jokoetara, 1980ko Moskuko jokoei boikota egin baitzieten AEBek. Montreal 76an AEBek 94 domina irabazi zituzten. Erreferentzia egokia zirudien, testuingurua kontuan hartu gabe. Baina testuingurua oso kontuan hartzekoa zen: Gerra Hotza ez zen oraindik bukatu eta lau urte lehenago AEBak izan ziren sobietarrei boikota egin zietenak.

Horregatik, McDonaldseko marketin arduradunetz gain, inor gutxi harritu zen 1984ko maiatzaren 8an, suziri olimpikoa Los Angelesera abiatzarekin bat, Altzairuzko Oihalez bestaldetik boiko-



tak iristen hasi zirenean. SESB izan zen jokoetan parte hartuko ez zuela esaten lehena; 1976an lehenengo postua lortu zuen domina-zerrendan, 125 ale bilduta. Eta aleka-aleka boikot gehiago iritsi ziren: Alemaniako Errepublika Demokratikoa (90 domina 1976an), Polonia (26 domina), Txekoslovakia (8 domina)...

Guztira jasotako 14 boikotek joko haietan domina lortzea erraztu zuten eta, azkenean, AEBek 174 irabazi zituzten, McDonaldsek aurreikusitakoaren ia bikoitza. Horrek esan nahi zuen doan

banatutako produktuak ere bikoiztu behar izan zituztela. Eta okerragoa izan zitekeen, blokeko beste kirol potentzia batzuek parte hartu izan ez balute. Errumaniak, Txinak eta Jugoslaviak, hiruen artean, 100dik gora domina eraman zituzten.

McDonaldseko arduradunek ez dute sekula publikoki aitortu kanpaina hark utzitako zuloa zenbatekoa izan zen. "AEBek irabazten dutenean, zuk irabaziko duzu" zioen kanpainaren leloak; "eta guk galduko dugu" gehitu behar zioten. ●



MIKE VONDRAN

Maien hirietako parkeak

Duela hainbat mende, Tikal eta beste hiri maia handi batzuek dozenaka milaka biztanle, errepideak, plaza zolatuak, piramideak eta ehunka etxebizitza zituzten. Eta Cincinnatiko unibertsitateak Tikalen egin berri duen ikerlan baten arabera, parkeak ere bazeuden hiri horietan. Lurreko estratueta landa-

re arrastoen DNA ikertuz ondorioztatu dute hiria edateko urez hornitzen zuten urmaelen inguruan hainbat zuhaitz, belar eta lore espezie landatu zituztela, batetik, eta, bestetik, zolatutako kale eta plazen artean oihan natural zati batzuk ere propio utzi zituztela. Baina ez dakite parkeok publikoak ziren ala ez. ●

Hausnartzeko makinak gelditzen dituztenak

ARGIA ETA OLATUKOOP ELKARLANEAN

Azken lau urte hauetan kooperatibagintzari buruzko hausnarketak landu dituzte Mitxelena tailerreko langileek. Kooperatiba sortu zutenei eta haien etxekoei eskertza egin zieten eta haiengandik “egina jaso” duten lan eredu hau baloratzeko eta kontzientzia hartzeko hiru saio egin dituzte. Denbora libreko orduetan joan dira batzuetan lantokira formazioa jaso eta eztabaidatzera, eta makinak gelditu dituzte beste batzuetan hausnarketa hiri egiteko.

“Tailerreko langileon artean kooperatibagintzari buruz hitz egiten egotea edo kooperatibagintzak munduan zer eragin duen edo zer kooperatibagintza eredu ezberdin dauden aztertzen aritzea... hori oso berria izan da guretzat eta horretarako makinak gelditu egin dira gainera”, azaldu dute Talleres Mitxelenako langileek.

Baina tailerreko lanetik ere era bateko mundua edo beste molde batekoa eraiki daitekeela pentsa daiteke, langile hauek beren jarduerak nola definitzen duten ikusita: “Pieza oso-oso handiak mekanizatzea da gure lana. Hein batean zerbitzu enpresa gara: enkargua egiten digunak jartzen digu pieza eta egiten du plano. Gu espezialistak gara mekanizatzen eta gure bereizgarria da guk pieza bakarra egiten dugula, ez dugula inoiz seriatua egiten. Makinan dauden langileek ematen diote forma piezari eta beraiek programatzen dute: sektorean joera justu kontrakoa izaten ari da, sistematizazioa, pertsona batek programatzea eta beste batek makinari ematea, zer egiten duen jakin gabe. Guk ez dugu hori nahi, gauza askogatik: makinaren parean dagoen pertsonagatik eta gure filosofiatik kanpo dagoelako automatizazioa”.

SORTZAILEEI ETA ETXEKOEI AITORTZA
2019ko irailean jubilatzen sortzaileetan azken langilea, eta ospakizuna baliatuz omenaldia egin zieten sortzaileei eta haien etxekoei, soka-dantza eginaz. “Oso



garbi gauen etxekoei ere eskertza egin behar geniola, garai hartan ez baitzen posible izango sortzaileak egunean hamabi ordu dena ematen egotea, beste batzuk etxeari eusten egon ez balira”.

Bertan lanean hasterako kooperatiba martxan ezagutu duten langileek kontzientzia hartzea beharrezko dela diote. Izan ere, 1957an sortu zen enpresa eta 90eko hamarkadan langileak egin ziren jabe, SL forma juridikoa hartuz. 2000. urtean bihurtu zen kooperatiba: “Norberak sortzeko lana egin ez duenean, askotan ez da baloratzen. Horregatik hasi gara hausnartzen, eztabaidatzen, ea kooperatibagintzaren inguruan kontzientzia hartzen dugun. Bestela badirudi kooperatiba dela dirua dagoenean banatzea eta batzarrera joatea baina aktiboki parte hartu gabe”.

GELDITU MAKINAK ETA HAUSNARTU

Farapi kooperatibak gidatuta “Erakide” erreminta aplikatzen lehenetarikoa izan zen Talleres Mitxelena. Erakidek erantzukidetasun sozialean enpresa nola dagoen diagnostikoa egiten du puntuz puntu hainbat eremu aztertuz: adibidez parte-hartzea, berdintasuna, zer harreman dituzten hornitzaileekin... “Erakide erremintaren bidez talde txikitako eztabaidetatik langileon bi heren pasatu ginen”, azaldu dute. Prozesu hau egin ostean, denen artean lehentasunezko zitaizkien bi gai aukeratu zituzten: barne-komunikazioa eta parte-hartzea. Eta parte-hartzea sustatzeko moduen artean atera zen sormen-taldearen ideia. Farapirekin egindako prozesu horren ostean,

hiru saio egin dituzte EHUKo Gezki institutuarekin. Saio horietako batean azaldu zien Gezki kooperatibagintzaren historia; beste saio batean azaldu zieten kooperatiba izateak zer ondorio dituen lege; eta hiru garren saioan azaldu zieten kooperatibagintza munduan eragiten ari dena eta zein kooperatiba eredu dauden.

ZER EGITEN DU SORMEN TALDEAK?

“Ikusten gauen proiektuaren parte sentitzeko, ekintza dela gakoa, hau da, ez dela aski batzarrean iritzia emate hutsa, zerbait egiteak berak egiten zaituela benetan parte”. Horretarako sortu zuten sormen taldea: bertan edozein langile elkartu daiteke, proiektu bat proposatu eta exekutatzeko. Sormen taldeko lanetatik berritu zuten bentilazio eta bero-tze sistema, eta orain espazio komunak hausnarketa egiten ari dira: sukaldeari zer nolako erabilera eman, zein behar ikusten dituzten... ●

mitxelena
LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING

talleresmitxelena.eus

Zer egiten du: Tamaina oso handiko piezak mekanizatu.

Langile eta bazkideak: 30 langile, horietatik 27 bazkide.

Noiz sortua: 1957an.

Egoitza: Hernanin.

Harremanetarako:
info@talleresmitxelena.com
943 55 25 12

LURRA HERRIARI DEIKA BIDEOAK

Lurrak deika darrai

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Ikusi diot bati baino gehiagori soinean kamiseta. Berdexka, arrosagoa, beixa... Gustuko izan du jendeak diseinua. Mezua. Filosofia. "Lurra herriari deika". Zuzena. Laguntza ekonomiko pixka bat jasotzeko sarri erabili da salmenta estilo hau herri honetan eta funtzionatzen du. Baina lurrak behar du dirua baino zerbait gehiago eta kanpaina ez da bukatu. Ikusi al dituzu azken asteetan argia.eus webgunean zabaldu diren bideoak?

ARGIAk agroekologia mugimendua rekin elkarlanean hasitako ibilbidearen pauso bat gehiago da, ezagutzera emateko Euskal Herrian eredu honen bueltan lanean ari diren hainbat proiektu. Asmoa da erreparatzea mugimendu hau osatzen dutenen artean dagoen aniztasuna. Barrieta lurralde, jende, ukitzen dituzten gaien ikuspegitik. Kazetaritza guztia ez baita berdina, eta nekazaritza guztia ere ez. Bai agroekologiak eta bai ARGIAk genero harremanak lantzen dituzte, burujabetza dakarten produkzio moduak, langileen eskubideak lantzen dituzte eta ingurumenarekin errespetuan egiten dute lan.

Lau dira dagoeneko publikoari zabaldu zaizkion bideo erreportajeak. Oraindik badira beste batzuk eskuarteetan, pixkanaka argitaratuko direnak. Orain arte

argia.eus/lurra-herriari-deika helbidean ikusentzun daitezke bideo hauek guztiak.

Kamiseta eskuratzeko sartu argia.eus/azoka helbidean.

Kamiseta bakoitzeko 2 euroko ekarpena egingo diozu agroekologia mugimenduari

osatutako dokumentazio guztia ikus-irakur dezakezue argia.eus/lurra-herriari-deika helbidean. Hazien merkaturatzen ari den Aleka elkarrekin, proiektu txikitzaileen aurka eta nekazaritza txikiaren alde lurrak okupatu eta lantzen dituen Lurraren Orena taldea, behi eta ardien esnekiak ekoizti eta langileak kontsumitzaileak eta ingurumena babestuz produktu osasuntsuak ekoiztea helburu duen Bizkaigane elkarrekin eta arrautza ekologikoak inguru gertukoan merkaturatzen dituzten Guneko proiektua dira erreportaje serie honetan oraingoz ezagutu ditzakegunak.

Bost-zazpi minutuko iraupena duten ikus-entzunezkoetan proiektu hauen berri izateaz gain, garrantzia eman diote paisaiari. Sarri irudikatu ohi baitugu Eus-



kal Herriko nekazaritza mendi eta belardi berdez inguratutako baserri baten itzulian. Zazpi lurraldeetako paisaien aniztasuna ere oso kontuan hartu da eta irudi zoragarriak bildu dituzte.

ARGIAk sinesten baitu eredu agroekologikoan hasi zuen ibilbide hau mugimenduko kideekin eta ondoen egiten dakiena eginaz jartzen du bere aletxoak: informazioa jaso, forma eman eta zabaldu. Horretan jarraitzeko asmoa dugu. ●



1924ko agorrilean Tolosan ateratako argazkia: Polikarpo Elosegi Ansola eta haren seme Periko Elosegi Irazusta Zeruko Argia irakurtzen.

Polikarpo Elosegi Funtsa

ZIABELARRAREN GAZTAK



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Gustukoa da sasoi honetan hel-tzen ari den ardi-gazta. Neguan eta udaberrian beheko lurretan egin dena. Geroxeago dastatuko ditugu goiko mendietara igo direnean egingo dituzten azken gazta apurrak. Horiek nabarmena izango dute belar berraren ahogozoa. Izan ere, hain garrantzitsua al da belarra? Artzainari aipatzen badiozu, harrigarritzko garrantzia duela sinetsiko duzu. Nire iritziz, larreko bazka da bateko eta besteko gazten arteko aldearen eragile nabarmenena. Jakina, larreetan bazkatzen diren ardietaz ari gara, ez kartzeletan irauten dutenetaz.

Ederra litzateke jakitea gure lurretan bazkatzen diren ardiek zein belar eta landare dituzten gustuko. Hor ere gure artean bezalaxe denetatik izango da noski, baina, elikadura erabat kulturala denez, hau da, taldean ikasi eta odolarekin jaraunsten dena, lekuan-lekuan, landareak batzuk gogora eta bestetzuk desgogora izango dituzte.

Ez dakit ziabelarrak (*Galium spp.*) zein taldetan sailkatuta dituzten ardiek. Gure etxeko sailetan bi izaten dira: ziabelar latza (*Galium aparine*) eta ziabelar horia (*Galium verum*). *Galium* izena grekoko *gala*, esnea, hitzetik dator. Ziabelar horia esnea gatzatzeko erabiltzen da; ziabelar ere hortik etor daiteke, esnea zihotzetik, baina baita landare osoa ziz betea delako ere. *Verum* abizenak benetakoa, genero horretako adierazlea dela esan nahi du. Ziabelar latzaren aparine abizena grekozko bere izena da, guk maita-belar ere esaten diogun horrena. Horrek loretxo zuriak ditu. Ziabelar horiak lore horiak ditu, bere ahizpak baino multzo handiago eta deigarriagotan bilduak. Euliak eta kakalardotxoak nahi ditu gainean, polinizaziorako. Eta euliak erakartzeko zer usain sortuko dute lo-rek? Ba pixa usaina.



Ziabelar horia (*Galium verum*).

Sendabelar ezaguna da. Batez ere bi erabilera nagusi ditu: azaleko zauri, urratu eta ebakiak orbaintzeko eta digestioari laguntzeko. Azken horretan bereziki gernu-aparatuko gaixotasun, giltzurrunetako harri eta zistitisaren tratamenduan. Pixa usainak guri ere zerbait esan nahi ote digu? Landare horrekin erotuxe idatzi ote zuen Franz Kafkak *Metamorfosia*? Dioskoridesek duela 21 mende idatzita utzi zuen *Gai medikoaz* sonatua, eta horko IV. liburukiko 97. kapitulu dioenez, “bere sustraiak genitalen indarra sustatzen du”.

Izen asko du gurean ziabelar horiak: gatzagi-belar, legar-belar, etxeko-alaba-belar, lapa txikia eta gatzagi-esne. Nire ustez, etxeko alabarena ziabelar latzaren izena da, maita-belarrarena; lapa txikia txakur-mihiarena (*Cynoglos-*

sum cheirifolium) eta “gatzagi-esnea” asmakizun bat, gazta gatzeleraz edo frantsesez jaten zuen baten asmakizuna, hizkuntza horietan *cuajaleches* eta *caille-lait* esaten baitzaio. Gatzagi-belarra bai, baina gatzagi-esnea esnea izango da, ezta?

Gatzagitarako bere lorea erabiltzea proposatzen diot gatzagile edo gatzatugileren bati. Toskana guztian zuen erabilera ezaguna da, eta Chester konderriko kolonoek erabiltzen zuten; hura zuten bere gaztaren maila gorenaren erantzule.

Lur azido-azidoak ez ditu gustuko, pH altukoak nahiago. Beraz, lurraren ezau-garri horren adierazlea da. Belarra bada ere, lurpean erraboiatxo du, eta urtero berritzen da. Maiatz eta irail artean ikusiko dituzu bere lore deigarriak. Oraintxe. Goazen berarekin esne marmitara. ●

BERASTEGI

HERRIKO ARTZAINTZARI ETA ONDAREARI DUEN BALIOA EMATEKO LANEAN



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Tokiko garapenari begirako hainbat dinamika abiatu ditu azken urteotan Berastegiko Udalak, herritarrekin elkarlanean. 2019an “Berastegi, herri kuttuna” marka sortu zuten, baina marka hutsean gelditzerik ez zuten nahi, eta dinamikari jarraipena eman eta lanketa zehatzak abiatu dituzte orain hiru alorretan: herriko artzaintzaren eta gaztaren kulturaren, bertako produktuenean eta herriko ondareari lotutakoan. “2019an proiektua abiatu genuenean, Josu Ozaita antropologoaren eskaintza jaso genuen, bertako artzaintzaren inguruko azterlan bat egiteko, potentzialitatea ikusten ziolako”, azaldu du Amaia Azkue Eizagirrre alkateak. Eskaintza onartu eta lanari ekin zioten.

ARTZAINTZA IKUR

Berastegik artzaintzarekin eta gaztarekin historikoki eta gaur egun duen lotura jasotzea da lehen lan-ildoaren helburuetako bat. Horretarako, herriko egungo artzainekin eta adineko jendearekin elkarriketak egin dituzte, haien testigantzak biltzeko. “Dokumentatzeko helburuarekin hasi ginen, baina ikusi dugu gaiak askorako ematen duela, eta azkenean, bildutakoa liburu batean jasotzea erabaki dugu”, dio Azkuek. Udazkenara begira aurreikusten dute lana argitaratzea; momentuz, landa-lana egina dute eta zuzenketa prozesuan ari dira Ozaitaren eta Zura komunikazio taldearen laguntzarekin. Iraganera begiratzeaz gain, gaurko errealitateari arreta jartzea eta etorkizunera begirako hausnarketa bultzatzea ere izanen da liburuaren helburua.

Artzaintza eredu txikia da Berastegin nagusi, kasu gehienetan osagarria dena. “Gehienak afizioz ari dira gaur egun, bai-



na azterketan ikusi dugunez, zenbatzea oso zaila izan arren, ekonomian eragin handia du”, dio alkateak. Gainera, artzainek herritarrei eskaintzen dizkieten elikagaiez gain, larreak eta paisaiak txukun mantentzeko egiten duten lanari ere garrantzia eman nahi izan diote. Behin liburua argitaratzean, artzain-mahaia sortzea izanen da hurrengo pausoa. “Herriko artzainek osatutako taldea izanen da, haiek erabakitzeke alor horretan zein bide hartu eta zein pauso emanen ditugun Berastegin”.

BERTAKO PRODUKTUAK ETA HERRIKO ONDAREA

Artzaintzarenarekin batera, bertako produktuak eta herriko ondarea dira tokiko garapenaren inguruan esku artean dituzten beste bi lan-ildoak. “Herriko

ekoizleekin biltzea eta horiek entzutea izanen da lehen lana”, dio Azkuek. Tokiko produktuen inguruan lanketa konkretuak abiatzeko ezinbestekoa zaie lehenik herrian zer ekoizten den, nola eta zenbat jakitea, eta momentuz horretan ari dira. Datu bilketa hori egin ondoren, lan-orri bat osatuko dute. “Eskolako jangela proiektuarekin ere bagabiltza, horretara bideratzeko lokala badugu, baina noski, lehenago zein aukera ditugun aztertu beharra dugu”, gehitu du.

Azkenik, herriko ondareari garrantzia emateko ekimenen artean, hiru ibilbide markatu eta homologatu dituzte azken hilabeteotan, eta aurrera begira gatzartetuliak egitea dute asmo: world-cafe-ren egokitzeapena litzateke, herriko ondarearen inguruan hausnarketa talde bat sortu eta dinamika bat abiatzeko. ●

EGOKITZAPEN ZINEMATOGRAFIKOAK EGITEAREN GAINEAN

ETA ANTIGONEREN HITZAK IRUDI BILAKATU ZIREN

Tabakalerako zineman eskaini zuten orain aste batzuk Sophie Deraspen *Antigone* (2019). Sofoklese idatzitako tragedia greziarra oinarri hartuta, 109 minutuko lana gauzatu zuen Québeceko zuzendariak, orijinaletik modu ausartean urruntzen den bertsio librean. Abiapuntu gisa aurreko obra bat duten egokitzapenak egiteari buruz ari dira ondorengo lerroak.

 AINHOA GUTIERREZ DEL POZO

Absurdoak egiten zaizkit “liburua filma baino hobea zen” edo “filmak liburuak adina arrakasta izan du” bezalako komentarioak. Absurdoagoak, ordea, oinarri hartu dugunaren kopia edo hura gainditzeko asmoak. Film bat ez da inoiz izango liburu bat, erreferentzia gisa hitz batzuk hartu dituen ikus-entzunezko lana baizik. Disziplina bakoitzak badu bere potentziala istorioak kontatzeko, eta, era berean, ezin dira hitzak eta irudiak parekatu, hizkuntza propioa baitu bakoitzak. Hitzek adina gozamen, plazer edo arbuio sor dezakete irudiek; irudiek bezainbesteko fikzioa eraiki, hitzek. Baina, nola *ikus*i Cortázarren kronopioak hauen ikusizintasunaren magia hautsi gabe? Nola *irakurri* David Lynch-en espazialitatea hondoa jo gabe? Bakoitzaren kodigoak ulertu eta baliatzean datza egokitzapenak. Eta akaso, orijinaletik urruntzeko lizentzia eskatzen du hori egiteak.

Obra guztiak mintzo dira aurretik egindako lanei buruz, nahigabeen bada ere; artearen historiaren zama ekidinezina da. Antzerkian eta musikan ohikoa da behin eta berriro besteen lanen bertsioak sortzea, oinarri dutenaren melodia edo hitzak gorde, eta handik aterata beste zerbait proposatzea. Zinemaren kasuan ere, askotan gertatzen da liburu bat oinarri duen gidoia idaztea. Batzuetan, liburua oso ezaguna ez bada, oharkabeen pasatzen da film adaptatuaren oinarria; besteetan, filmaren arrakastak puztu egiten du liburua, edo alderan-

tziz. *Harry Potter*-en saga edo *Eraztunen jauna* izan daitezke horren adibiderik ezagunenak. Gogoan dut, baita ere, orain dela bi urte ikusitako Greta Gerwigen *Emakumetxoak* (2019) filma, zeinak izen bereko liburu eta filmak zituen aurrekari eta oinarri gisa. Bertsioen kontua, halere, artearen sorreran kokatu beharko genuke, edo haratago joanda, gizateriaren funtsean: asmakizun on batek beti izango du hura garatzeko potentziala. Denboraren igarotzearekin, obra batzuk ahanzturan gelditzen dira, eta beste batzuk, ordea, iraun egiten dute; bertsioak badira gauzak iraunarazteko gako.

Harrigarria da gatazken luzapena denboran barrena, baita tramen errepikapena ere. Oso existentzial jarrita, esango genuke ez dugula ezer ikasi, eta harri berarekin estropezuka segitzen dugula lehengo garaietatik gaur egunera arte; ikusi besterik ez dago nola erretrata dezaketen aktualitatea orain dela hainbat mende sortutako kondairek. Mitoak, sarri, gizakiaren ahuldadeen inguruan mintzo dira, eta, akaso, hori da eternalki gazte izateko beren elixirra. Mitologiak beti du hanka bat fikzioan eta beste bat errealtatean, beraz finkoa den ardatza bada kondaira edo morala, aldatzen dena testuingurua da. Agian ez da gauza bera moldaketa literala egitea eta zerbait oinarri hartuta bertsio askea egitea. Oinarriaren fidelitasuna baino garrantzitsuagoa da, nire ustetan, bera-gandik urruntzea. Oreka ez da erraza. Halere, nago espekulatzailak izateko

konplexuak gainetik kenduta emaitza interesgarriagoak sor daitezkeela.

Sophie Deraspen filmean, *Antigone* familiarekin Québecen errefuxiatuta bizi den gazte algeriarra da. Pelikula hasterako, gurasoak ihesean galdu dituzte jada, eta Étéocle, Ismène eta Polynice anai-arrebek, hauen amonarekin, Montréal-en lortu dute asilo politikoa. Drama hasia dago jada; Polynice anaia trafikatzaila atxilotzerako orduan, Étéocle erailko du Poliziak. Eztanda horren erdian, familiaren ezbeharren zerrenda luzatzen joango da, Sofoklesen tragediaren interpretazioan. Antigonek, bere buruari ilea moztuta, anaia ordezkatzeko duen espetxean hark ihes egin dezan; deportazioa heriotza bera dela argi utzita, suizidioaren marka darama ekintzak. Gizarteak, familiagatiko sakrifizioa egiten duen heroizat hartuta, bere aldeko kanpaina erraldoia abiatuko du sare sozialetan eta herri mugimenduetan. Deraspek ez du zalantza egiten egokitzapenerako lizentzia askea hartzean: esaterako, Creonte, mitoan Tebasko agintari dena, Estatuak berak errepresentatzen du filmean. Hura da burua galtzen duena, botereak galbideratzen duena, eta Antigoneren heriotza eskatzen duena. Horrela, pertsonaiak metaforikoki islatzeko baimena hartuta, Antigonerengan protagonismoa eta fokua jarrita, eta arbitrarioki hautatutako pasarteen pisua erabakita, oinarri bat duen baina horrek baldintzatua ez dagoen obra sortu du zuzendariak. Kasu honetan, hariak ez du jarraitzeko



Filmaren fotograma.

beharra inposatzen, baizik eta zerbait kontatzeko erramintak sortzen ditu.

Egokitzapenetan kontuan hartu beharreko gauza da garaia beti baldintzatuko duela obra. Esan nahi da: beste aro batera joan izanaren ilusioak gainean darama bere iraungitze-data. Ezin kontrola daiteke filmak aurrera egin ahala ikusleak poltsikoan duen mugikorrak egiten duen bibrazioa, eta kanpo munduaren ohartzea. Eta ondorioz, liluraz ikuslegoa harrapatu eta segituan galtzeari beldurrik gabe, Deraspek mundu hori ere integratzen du obran. Errealitatearekiko zubia istripuz gertatu beharrean, filmak eraikitzea da gakoa. Honek ez du esan nahi lan guztiak orainaldian kokatu behar direnik, baina bai azpimarrara liteke, akaso, ikusleari keinu egiteko beharra, eta distantziak apurtzearen garrantzia. Ikusleak bila ditzan erramintak bizi den munduaren inguruan pentsatzeko; finean, filmak koadroz kanpokoan eragiten uzteko. Munduarekin hitz egiteko gaitasuna behar du filmak, zein ordutan bizi den jakin. Antigonek Québecen errefuxiatuta bizi diren algeriarren bizitza kontatzea proposa lezake.

Emakume indartsuak protagonista gisa ezartzeak ez gaitu ezustean harra-

patu. Aspaldi da feminismoak gizarteari presio egiten diola gai hauek mahaigaineratzeko. Hortaz gain, Antigone bostereari men egiten ez dion eta ezezkoa esaten dionaren ikur bihurtu da mugimendu feministan, nahia eta beharra legearen gainetik jarrita. Legeari ezetz esaten dion lehen emakumea, Eva bat, gizartearen babesa lortzen duena. Pelikulan eskaintzen duen migrazioaren inguruko zentzu komunak ultraeskuindar gobernu-politikei erantzuna eman nahi die. Forman ere ausarta da filma; sare-sozialen estetika erabiliz eta Facebook eta Instagrameko fotograma bidez eraikitzen dira pasarte batzuk, une batez fikzioa ere kolokan jartzen dutenak. Étéocleren heriotzean, adibidez, ingurukoek igotako instagram-istorioak eta WhatsAppeko argazkiak ageri dira, eta zalantzan jartzera garamatzate ez ote den gidoia benetan jazotako zerbaitetan oinarritu. Eta hala izan gabe ere, segidan lortzen du aferak ezagunak ditugun iruditeriak pizten. Mitoaren aktualizazioa harago doa, gainera. Hainbat kondairatan ageri dira ardi larrua jantzita nortasuna ezkutatzea lortzen duten heroiak. Istorioa ezagun dugu euskal mitologian, Tartalo kasu, baita Bibliako Esaú eta Ja-

koben pasartean. Azken horretan, anaia batek lenteja plater batengatik saltzen dio besteari premutasuna; gero, gaixo dagoela, anaia gazteenak ardi larrua jantzita engainatzen du aita trukea bete dadin, anaia zaharrena (eta handiena) dela antzeztuta artileari esker. Ikonoграфия hau guztia bizkarrean, Antigonek begietako lentilak eta tatuajeak erabilia engainatzen du kontrol poliziala anaia kartzelatik ateratzeko, mitoen egunera-tze distiratsuan.

Epaiketa gainean duela eta adingabeentzako zentroan itxita dagoela, Antigonek irudipenak ditu. Tiresias azaltzen zaio, Tebaseko igarle itsua, psikiatraren paperean. Horrek laburtzen du filmaren mezua: ausarta dena, beti biziko da gizarteak behartzen duen zurruntasunaren eta barruak eskatzen dion eromenaren artean. Hori da kondena. Kondairaren izenburuak ere gauza bera zioen lehendik; *Anti*, ukazioa edo aurkakotasuna; *Gone*, malgutasuna. Beraz, Antigone maluezin da, eta horrek darama tragediara. Zilegitasunaren inguruko obra honen egokitzapenak egungo gatazkak pentsatzera garamatza, hitzetatik irudietarako bilakaeran. Urrunera joateko bisarik eskatu gabe eginiko bidaian. ●



LIBURUA

Hobe egongo ez banintz



DE BAJIE

HAN EZ BANENGO BEZALA

EGILEA: SLAVENKA DRAKULIC
ITZULTZAILEA: AMAIA
APALAUZA OLLO

PASAZAITE

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Ekainean bederatzi urte egin ditu Pasazaite argitaletxeak. Hamabost liburu argitaratu dituzte denbora tarte horretan eta horietako bat da Slavenka Drakulic kroaziarraren *Han ez banengo bezala* liburu gordin eta gogorra.

Liburua Jairo Dorado Cadillaren hitzaurrearekin hasten da. Oso interesgarria da bertan planteatzen duen auzia eta pentsamenduan katramilatuta geratu zait esaten duena: “Fikzioak ahotsa ematen die hitz egitea erabakitzen duten pertsonaei, aurpegirik eman behar izanik gabe. Aurpegirik eta izenik gabeko milaka emakumeren kontakizun anonimoetan oinarritua da, beraz, fikzio hori; anonimoak bai, baina betiere errealak, indibidualak eta egiazkoak”. Ezingo nuke hobeto azaldu.

Bosniako gerran haurrei, neskatilei eta, oro har, emakumeei soldaduek egingako bortxaketa sistematikoak salatzen ditu idazleak liburuaren bitartez. Estruk-

tura borobila du kontakizunak; 1993ko martxoaren 27an hasten da lehenengo kapituluarekin eta urte bereko martxoaren 28an bukatzen da azkenengo kapituluarekin. Bien bitartean, baina, 1992ko maiatzetik gertatutakoa kontatzen zaigu.


Ahots narratiboa hirugarren pertsona orojakilea da, nahiz eta letra etzanez agertzen diren pasarte batzuk ere tartekatzen diren istorioan. Kasu horietan lehenengo pertsona irakurri ahalko dugu eta protagonistaren ahotsa aurkituko dugu hausnarketak egiten.

Protagonistaren izenik ez dakigu, S. iniziala soilik ezagutuko dugu. Leku konkreturik eta beste pertsonaien izenik ere ez dugu jakingo. Jairo Doradok aipatutako anonimotasunaren adierazle; izan ere, edozein emakume eta gerra izan zitezkeen liburu pertsonaia eta espazioa. S.-k hartzen du gure atentzioaren handiena. Bizitza arrunta izatetik, gerra krudel eta gordinaren ondorioak

jasatera igaro den emakumea ikusten dugu. Besteenganako konfiantza galtzen du lehenengo; beldurra onartzeko zailtasuna du gero; gorrotoz pizten zaizkio begiak. Guri erre egiten digu azalak. Finen, nola apurtzen duten kontatzen du. Nola identitatea lapurtzen ahalegintzen diren.

Oso estilo zuzena darabil. Esplizitua detaile eta gertaeretan. Gertatuko denaren beldur den pertsonaiaren buruan sartzen gara, irakurlea ere gertatuko denaren beldur. Angustiaz eta amorru irakurri dut. Kontu handiz irakurtzeko liburu da. Ekarpina handia da. Luxu hutsa euskaraz irakurri ahal izatea.

Slavenka Drakulic-en hurrengo liburu Txalapartaren eskutik urriaren 1ean argitaratuko dela aurreikusten da eta hori ere Amaia Apalauza Ollo itzuli du euskarara: *Sekula ez liokete euli bati hegalik kenduko* du izenburua. Irakurtzeko irrikan nago. ●



MUSIKA

Denboraldi amaiera erromantikoa



EUSKADIKO ORKESTRA

Euskadiko Orkestra. Zuzendaria: Robert Treviño. Bakarlarria: Nikolai Lugansky. Egitaraua: Rachmaninov eta Mendelssohn-en lanak. Gasteizko Principal Antzokian, ekainaren 17an. Argazkia Kursaalean (Donostia) eskainitako programa berekoa da.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Euskadiko Orkestrak amaiera gozoa eman digu denboraldi zailaren ostean.

2020-2021 denboraldiko azken hitzorduan, kutsu erromantikoa zuten bi lanek osatu zuten programa, baina garai oso ezberdinetakoak ziren, eta biek elementu bereziak zituzten.

Rachmaninov publikoak gehien maite duen konpositoreetako bat da, beharbada XX. mendeko konpositorea izanik, bere lan guztietan giro erromantikoa kutsu zinematografiko indartsuz landu zuelako. Hala ere, egia da nolabaiteko mespretxuzko aura bat ibili dela konpositore honen inguruan. XX. mendeko lehen hamarkadetan, Europako konpositore nagusiak tonalismoa aldentzen ziren eta beste adierazpide batzuk bilatzen zituzten. Hala ere, Rachmaninovek eutsi egin zion erromantizismoaren harmonia eta konposaketa ulertzeko moduari.

Baina Rachmaninoven jeinutasuna aldarrikatu behar dugu, egitura erromantiko horrekin XIX. mendeko musikagileengandik izugarri bereizten duten ñabardura harmonikoak bilatzen jakin baitzuen. Bere lanetan hain bereizgarria den giro garaikidea ematen diote.

Bestalde, Rachmaninov lehen mailako piano-jotzailea izan zen eta pianorako egin zituen lanetan nabaritzen da, oso birtuosistikoak, baina erabat ergonomikoak dira, eskuen mugimendu eraginkorretarako ondo pentsatuak.

Aurretik esandako guztia *Paganiniren gai bati buruzko Rapsodia*-n islatzen da, 1834an idatzia. Niccolò Paganini-k biolinarako egindako bariazio batzuk hartzen ditu iturri gisa, baina birtuosismo ariketa egiteaz gain, collage estetiko ere egiten du, ñabarduraz eta umore aldatuek betea. Obra zoragarri hori gor-

puzteko Nikolai Lugansky piano-jotzaile errusiarra baino hobe den inor ez dago, teknika paregabearen, musikaltasun aberatsaren eta gertuko izaeraren jabe baita. Hori guztia interpretazioei transmititzen die, zintotasunez eta inolako itxurakeriarik gabe.

Programaren bigarren obra Mendelssohnen *3. Sinfonia -Eskoziarra-* izan zen. Hamabi urte igaro ziren 1829an konpositoreak Eskoziara egin zuen bisitaren eta 1840ko obraren estreinaldiaren artean. Hain denbora luzean, Mendelssohn paisajista eta bidaiariaren memoriak konposizio hutsezko kontzepzio pean geratu ziren, hamarkada bat baino gehiagoz hausnartuak, eta ondorioz, egitura formal berritzaile eta irudimentsu konplexua sortu zuten.

Euskadiko Orkestrak interpretazio indartsu eta bizia egin zuen. Festaren amaiera bikaina. ●



Izpirituen inbokazioa

 IÑIGO BASAGUREN-DUARTE

Izpirituz inguratuta bizi gara. Gure artean daude eta gure esku dago beraiekin hitz egitea. Gure iraganeko izpirituek ezagutzak irakatsi nahi dizkigute eta gure esku dago horiek entzutea, barneratzea eta gure arimarekin nahastea, baita prozesu horretatik irakaspenak ateratzea ere. Hori da Ibonrg-ek (Ibon Rodriguez) eta Enrike Hurtadok euren azken proiektuan egin dutena: medium papera hartu eta Joxean Artzeren izpirituak inbokatu.

Errittoa Bilboko Bira gunean izan da ekaitza urruti ez duen ostiral arratsalde batean. Eguraldia ere lagun dugu, halako esperientzia baterako ezin aproposagoa begitantzen baitzait hodei ilunen eta trumoiaren mehatxua. Inbokazioa Jon Martinen margolanaren aurrean egin da, Ibonen ahotsaren eta Enrike Hurtadok sortutako txalaparta loop-en laguntzaz. Bi lagunak euren disko berria aurkez-

tera datoz: Joxean Artzeren olerkiak oinarri hartuta hamaika abestiz osatutako lana. Ez da omenaldi sinplea, egileek artista usurbildarraren olerkiak musikatu baino, bere obratik abiatuta irakaspenak euren koordinatuetara hurbildu eta artefaktu berri bat sortu baitute. Hori da gaurko espiritismo saioan aurkeztu behar dutena.

Txalaparta deia ketan joan ahala hasi da Ibonen kantua. Bere abesteko modua aski ezaguna dudan arren, bere ahotsak beti sorgintzen nau. Amorrutik betetako orroak jaurtitzeko gai da, baita melodia gozoez entzuleak xarmatzeko ere. *Hil zara* (Repetidor, 2019) lanean harrিতuta utzi ninduen, baita 2020ko MEM jaialdian egin zuen emanaldian ere. Enrike Hurtadok, bestetik, txalapartaren ertzetatik loop inguratzaileak eta ahotsarekin bikain lotzen diren melodiak sortzen ditu ehun sendoa osatzeko.

OMORRUMU BAMAT (IBONRG + ENRIKE HURTADO)

NOIZ: uztailak 2

NON: Bira (Bilbo)

Aurkariaren konfrontazioa izan da emanaldia. Barneko eta barruko munduak elkartu dira abestietan. Iluntasuna eta argitasuna txanpon beraren bi aldeak direla erakutsi digute *o! Donostia* abestian. Euria bezain garden eta haizea bezain biluzik agertu dira batzuetan, ilun eta kriptiko besteetan. Ahotsarekin jolastu eta melodietatik kaosa sortu dute *atso otsoa*-n. Zenbakiakin sortutako abestiei kopla batek jarraitu die, tradizioa eta esperimentazioa aurrez aurre ipiniz. A capella abestu dute batzuetan, teklatu eta makinak izan dituzte lagun besteetan, mundu organikoaren eta sintetikoaren arteko dantzan.

Errittoa bukatuta, kea eta kedarrarekin zikinduta bukatu dugu bizitzaren absurduaz jabetzearekin bat. Lilura desegin denerako medium-ak eszenatokitik desagertuta zeuden eta izpirituari agur esan behar izan diogu. ●



Hitz gezidunak

ARRAIN MOTA UGAZABA, NAGUSI		PERTSO- NAIAREN IZENA BARRUA		GOIAN DEN TOKIRA		DAGO HURBIL		EUSKAL TELEBISTA FRANTSESEZ, KALEA		KONTU, TOPIKO GAZUR EGOSIAREN HONDARRA		NEKAGAITZ OINAZEALDI LUZE	
				OHARTU GABE UKAPEN									
NAFARROAKO HERRIA GORAIPAMEN, LAUDAMEN						UBELDURAK ROENTGEN							
										ZELAN BURU BATZAR			
Du, HAIEI	NOTA BOKAL BARIK GAROA										LETRA IZENA PERTSO- NAIAREN ABIZENA		
				UR BILA						EGOKI, ERARA BEHERANTZ JOAN			
HEMEN DAGOENA PARE BAT													
		ERRESISTEN- TZIA LOTSAGABE								EDADE PILOTAN JOKATZEKO TRESNA			
LEKEITIOKO MUSIKA TALDEA ATZEMATERA BEHARTU				JADANIK KATUAREN MIAUA		ZIBURUKO RAP TALDEA NIHAUR		FOSFOROA PIRATAREN EDARI		MODU ATZIZKIA ORDAINTZE- KO BETEBE- HAR			EGUNAREN ZATI ILUN
												GIGA IDI HITZ- ELKARKETAN	
GAU BELEA BARAU EGIN					BIOLOGIAREN ATALA TONA								
							JORITU, UGALDU						



Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

			7		6			
7	1			4	8			9
	6			3	1			7
		1					2	4
	7						1	
8	2					9		
6			3	1			4	
2			8	6			9	3
			9		7			

5x5

ZECHARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Lur azpiko pasabide
2. Udak irauten duen denboraldi
3. Arre, gris
4. Fasea
5. Grinak

EBAZPENAK

1. TUNNEL
2. UDATE
3. NABAR
4. ETAPA
5. LERAK

5XS:

8	6	5	2	7	6	3	4	1
3	6	1	4	9	8	7	5	2
2	5	7	8	1	5	7	4	2
6	9	3	1	5	7	4	2	8
8	2	4	1	5	3	6	7	9
9	6	7	4	8	3	1	2	5
5	3	1	6	7	9	4	2	8
4	9	5	3	1	2	8	7	6
7	1	5	2	4	8	6	3	9
3	8	2	7	9	6	4	5	1

B	V	R	V	V	N	A	V	T	U	O	R	A	T	U
Z	V	Z	V	V	K	O	L	G	O	G	I	A	V	A
A	Z	T	A	M	A	N	A	I	Z	I	A	G		
N	O	K	O	M	P	R	O							
B	I	R												
H	V	U												
E	I	E												
N		J												
G	O	R	V	Z	A	R	R	E	N	O	L	A	V	
M	A	N	E	U	B	E	L	A	K					
V	B	E	H	O	A	R	T	Z	E	K				
Z	B	G	D	L										

Luciana Alfaro Lavado

DESKOLONIZA GAITEZEN



INOR EZ DA ILEGALA

“Bergaran, adibidez, etxebizitzaren eskubidea arazo bilakatu da. Eta Euskal Herri osoan esango nuke. Guk, talde feminista gisa, egoera hori azaleratu nahi izan genuen Emakumeen Mundu Martxarekin. 900 etxebizitza huts daude hemen. Herrian lan egiten duten emakume etorkin askok ezin dute etxebizitza bat lortu eta ez da bidezkoa. Hemen bizi dira, hemen lan egiten dute, hemen erosten dute... Sistema arrazistak dituen burokraziak uzten ditu etxebizitza eskubidetik at. Soilik etorkin izateagatik”.

“Alternatiba indibidualen aurrean, kolektiboki pentsatzen hasi beharko genuke”

Perutarra da sortzez Luciana Alfaro, eta azken urte luzeetan Bergaran bizi da. Osasun krisiak emakume etorkinen kolektiboetan nola eragin ote duen kezkatu-rik jo dugu beregana, eta azkenean zaintza lanetan jarduten dutenez hitz egin dugu bereziki. Emakumeen Mundu Martxako kidea da, eta aurtengo edizioan ikusgarritasun handia eman nahi izan diote gaiari: “Hango zein hemengo identifikaturik senti dadin eta borrokari ahalik eta dimentsio handiena emateko”.

 AITZIBER ZAPIRAIN  DANI BLANCO

Gizarte langilea zara.

Perun egin nituen ikasketak. Han eta hemen oso ezberdina da burutzen dugun funtzioa, baita lan eredua ere. Han modu zuzenean lan egin ohi dugu familia, auzo-elkarte edo enpresekin. Azken horietan, adibidez, langileen ongizatea bermatzeko programak aurrera eramatea izan ohi da gure funtzioa. Familia edo auzo-elkarteetan aldiz, biztanleen antolaketa eredu-
an jarduten dugu. Betiere bizi baldintza egokiagoen alde. Modu kolektiboan antolatza-
ria animatzen ditugu, modu komunita-
rioan. Norbanako indibidualen ere-
dua baztertuz. Hemen ordea, udale-
tatik egin ohi da lan hori. Burokrazia
gehiago dago zinezko kaleko lana
baino.

Nola eragin du COVID-19aren osasun izurriteak emakume etorkinen komunitateetan?

Oso zaila ikusten dut egoera. Bel-
tza. Argi ukan behar da, emakume
etorkinen kolektiboa ez dela homo-
geneoa. Kolektibo ugari gaude eta
oso ezberdinak. Legearen aitzinean

dugun egoerak zaurgarriago egiten
gaitu. Oso ezberdina da jada modu
ofizialean egotea edota paper ofi-
zialik gabe egotea. Zaintza lanetan
dihardute emakume etorkin gehie-
nek. Beraiek dira izurrite honetan
lehen lerroan egon direnak eta dau-
denak. Maria Juncay kideak esaten
duen gisan, “Zaintzen dugun pertso-
naren aitzinean kokatzen den pareta
edo babesle bilakatu gara”.

Egoera erregulatu gabe duten ki-
deak atzerritartasun legeak zehar-
katzen ditu, bete-bete harrapa-
tzen ditu. Askok lana galdu dute,
eta horrekin batera baita etxea ere.
Horri egoera irregularrean egotea
erantsita, aspalditik abiatuta duten
legeztatze egoera eten egiten da.
Ametz gaizto bilakatzen da.

Egoera horretan dauden emaku-
me asko ama dira, gainera. Eta be-
ren haurren premiei ere aurre egin
behar diete, noski. Ikasketak pagatu,
etxean lanak egin ahal izateko inter-
net pagatu, arropa... Dena kate bat
da. Pandemiaren eraginez, bestalde,
interna gisa lan egiteko eskaria igo
egiten da nabarmen. Azken batean fa-



"Arrazakeriaren kontra ere antolatuta dagoen mugimendu feminista behar dugu, emakume migratuen agendari ere espazioa emango diona".

miliek beren senideak zaintzeko anean ahalik eta kontaktu gutxien egotea nahi dute, kutsatze arriskua mugatzeko. Krisi honek asko kolpatu du bereziki zaintza lanetan diharduten emakume etorkinen sektorea. Ezinbestekotzat jo dute zaintzaren arloa; eta hala da. Baldintzak, ordea, ezin prekarioagoak dira. Aurrez ere hala zen eta orain okerrera egin dute. Hipokrisia handia dago gaiaren inguruan.

Zuri nola eragin dizu pandemiak?

Irailera arte lana izan nuen fundazio batean, eta geroztik langabezian nago. Baina nik langabezia kobratzen dut. Pribilegiatua sentitzen naiz, nahiz eta nire eskubidea izan. Zaintza lanetan jardun duen emakume etorkinak, normalki, ez du langabezia eskubiderik. Sistema-ren tripak oso maltzurak dira. Eta beti pentsatu ohi da norberari ez zaiola halakorik pasako, baina batek daki. Pentsamolde horrekin, jende askok borroka horretatik kanpo kokatzen du bere burua, ez da identifikatua sentitzen, eta horrek potentzial handia kentzen dio borrokari. Ezin da aherentzi oinarritzko giza eskubideen aldarrikapenez eta defentsaz ari garela. Aurtengo Emakumeen

Mundu Martxan indar berezia egin nahi izan dugu egoera ikustarazteko, arazo hau Euskal Herriko kaleetan ematen dela azpimarratzeko.

Nola laguntzen zaitu mugimendu feministan antolatua egoteak?

Askok laguntzen nau. Herrigintzarengan sinesten dut, hortik dator. Hor daude nire sustraiak eta jatorria. Kolektibo feministan sortzen diren indarrak, josten diren sareak eta burutzen diren ekin-tzak erabat emankorrak dira nire iritziz.

Deskolonizazioa aipatzen da gero eta gehiago.

Egoera iraultzeko, benetan bestelako mundu bat sortzeko, deskolonizazioa ezinbestekoa da. Arrazakeriaren kontra ere antolatuta dagoen mugimendu feminista behar dugu, emakume migratuen agendari ere espazioa emango diona. Bertakoen eta atzeritarren arteko harreman subordinatua sustengatzen duen mugimenduak kalte besterik ez du egiten. Harreman bertikalekin ez dugu lanik egin nahi. Euskal Herrian, salbazio harremanetatik berdinetik berdinerara aritzeko harremanak lantzen ari gara.

Lan handia egin duten zenbait kolektibo daude, honaino heltzeko ezinbestekoak izan direnak: Malen Etxea, *Mujeres con voz*, Bidez bide...

Krisiak aukerak dira?

Zenbaitek hala diote. Nik uste dut benetako aukerak izan daitezen behetik lan handia dugula egiteko. Antolatuta gauden kolektiboetan bestelako jendarte eredu baten aldeko borroka nola landu gogoetatzen hasi beharko genuke. Ez soilik orain artekoa errepika ez dadin, baizik eta sortuko den hori alternatiba erreala izan dadin. Egun, jende askoren kezka oporretara joateko PCR proba edo txertatu behar izatea da, edota baserri bat erostea, berriz ere konfinatuko bagintuzte egoera eraman-garria izateko. Alternatiba indibidualen aurrean, kolektiboki pentsatzen hasi beharko genuke. Gainontzean, jendarte heteropatriarkal arrazista erreproduzitu besterik ez dugu eginen. Oinak lurrean behar ditugu. Gaztetxeak, auzo elkarteak, guraso elkarteak... batzen gaituzten topalekuak behar ditugu zerbait berria eraikitzen hasteko. Hobeia izanen da, dudarik gabe. ●



BERANDUEGI
KRONIKA SERIOSA EGITEKO



BIDALI ZURE HARRIKADAK: BERANDUEGI@ARGIA.EUS

Basque Village Language Academy for Basque Cosmopaeton Acronyms sortu du Basqucae Jaurlaritzak



Basque Culinary Center (BCC), Bermeo Tuna World Capital (BTWC), Basque Artificial Intelligence Center (BAIC), Basque Centre for Climate Change (BC3), Basque District of Culture and Creativity (BDCC), Basque Countryside Beef University (BCBU)... Lanak pilatzen ari zaizkiola-eta, Basque Jaurlaritzak BVLABCA sortu du, Basque Village Language Academy for Basque Cosmopaeton Acronyms. "Helburua da Bingen Zubiriak datozen

lau urteetan aurkeztuko dituen 317 erakunde berrientzako izen eta akronimo ponpoxoak boteprontoan asmatzea", azaldu digu akademiako hiztegi-arduradunak, Jon Braunek. "Bada derrigorrez sartu behar dugun terminoa: 'Basque'. Baina hortik aurrera, dena libre. Erronka nagusia da 'Basque district' baino gauza lausoagoa asmatzea, aldeanoak izateari utzi eta munduko hiritar bihurtu nahi dugula aditzera emateko".

Txakurra zure lagunik onena da, txakurrak ez dizu gezurrik esaten



IRUDIA: SAGARDO_TEGI / INSTAGRAM

SAREAN ARRANTZATUA

Euskal herri isila



IRUDIA: SARDINTZARRA / INSTAGRAM

Jo ezak berriz, Lete



IRUDIA: EUSNOB_BAT / INSTAGRAM

Giputxia EHZN



IRUDIA: XALBATOR / INSTAGRAM

INPRENTA
Offset eta digitala

**DISEINU
GRAFIKOA**

DISEINU
EDITORIALA

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

*Txikitik eragiten
Komunitatea zaintzen
Bidea eraikitzen
Aurrera!*



**ALDIZKARIAK
ESKU-ORRIAK
KARTELAK
LIBURUAK
EGUTEGIAK
KATALOGOAK
AGENDAK
KOADERNOAK
KARPETAK
LOGOTIPOAK**

www.**antza**.eus

Zirkuitu Ibilbidea 2, 20160
LASARTE-ORIA
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus

piztuko dugu sua?


IRAULTZA TXIKIEN AKANPADA

— herri mugimenduen topalekua —

convergencia
de luchas

الاتحاد
قوة

convergence
des luttes



abuztuak 25-29

ARTEA (BIZKAIN)